

datorrena

Jeremy Corbynen garaipenak
eztabaida piztu dezake **IÑAKI SOTO > 3**

IKER MERCHAN: «Gizartea
parekidea ez den artean, Internet
bera ere ez da izango» **> 22**

2015eko irailaren 5a | IX. urtea • 432. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



PRESTATU EGIN BEHAR DA

IKASLERIK GABE JARRAITZEN DUTE EUSKAL HERRIKO HAINBAT IKASTETXEK, BAINA IRAKASLEAK EZ DAUDE GELDIRIK EGOTEKO. IKASLE UHOLDEA IRITSI AURRETIK HAINBAT LAN DITUZTE EGITEKO; IRAILA HASIERA DUTE HORRETARAKO. **> 23** Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

**Zaborraren gaiak hankaz gora jar
lezake Libanoko Gobernua** 04

**Ikusmira: Nabi Saleh mapan ipini
duten emakumeen ausardia** 07

**Poloniak munduan zehar diren
poloniarrak bueltan nahi ditu** 08


**Ikasturte hasiera eta laneko
eraginkortasuna** 12

**Erroak berreskuratzeko lanean
dihardu Sustraibarrik** 17

**Elkarrizketa: Iker Merchan, Internet
eta emakumeen arteko loturaz** 22

**Nekazaritza ekologikoa:
Elkarrizketa Onintza Enbeitari** 26

**In fraganti: Eunate Arraiza,
Athleticeko jokalaria** 28



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Jeremy Corbynen garaipenak eztabaida piztu dezake
- 10 **Ander Gortazar:** Hundertwasser gainbegiratu
- 11 **Iñaki Altuna:** Iraganak eta etorkizunak berriro egingo dute talka
- 16 **Ainara Azpiazu «Axi»**
- 20 **Arantxa Urbe:** Laugarren hiruhilekoa amaitzen denean
- 21 **Iker Barandiaran:** Lehen aldia
- 25 **Mirari Martiarena:** Kattagorriak
- 25 **Koldo Sagasti:** Beldurra
- 30 **Txelo Ruiz eta Elena Lazkano:** Robotak ardi elektrikoak amesten?



{ datorrena } Iñaki Soto

Jeremy Corbynen garaipenak eztabaida piztu dezake

Zintzoa izateko, oraindik ez dut datorren irailaren 12an laboristen primarioetan Jeremy Corbynek irabaz dezakeenik sinesten. Urrutitik begiratuta, kanpotik, mesfidantzaz ikusten dut bere inguruan piztu den ilusioa, nigan sortu duten ilusioa. Berak bere esku zegoen guztia egin du, bere lantaldeak eta bildu dituen milaka eta milaka jarraitzaileek lan itzela, bikaina egin baitute. Aldaketa politikoan sinesten dugunok, Corbyn berarekin ados egon ala ez, asko dugu haiengandik ikasteko. Baina rockero zaharraren eta belaunaldi berrien arteko konexioa fintzen hainbeste lan egin duen Owen Jones (@OwenJones84) idazleak bere azken liburuan azaltzen duen bezala, *establishment*-a oso garrantzitsua da Britainia Handian. Eta "laborismo berriak" pisu handia du bertan. Hori guztia gainditzeko gai izango direla transmititzen du Jones berak, gaur egun hainbeste baloratzen den eta Corbynek maisuki jorratzen duen "inspirazioa" ikur gisa hartuta.

Corbynen hautagaitzaren harira laborismo ofizialean ematen ari den eztabaida ikusita, irabazita ere bere lidergoan aurrera egin ahal izango duen zalantzan jartzen dute askok. Alderdiaren pisu astunak Corbyn gutxiesetik bere jarraitzaileak mehatxatzen igaro dira, mesprezuaren diskurtsotik beldurraren diskurtsora pasa dira. Kanpotik ikusita, oso modu traketsean, baina, agian, baita eraginkorrean ere.

Horren adibide da Tony Blair berak "The Guardian"-en argitaratutako azken artikulua: «Jeremy Corbynen politikak fantasia dira, 'Alizia herrialde miresgarrian' bezalaxe» [<http://goo.gl/gm5ha6>]. Argi dago, ordea, artikulua horren atzean kalkulu handia dagoela, oso neurtua dela. Adibidez, argi dago bere helburua ez direla zuzenean Corbynen jarraitzaileak, baizik eta agertoki horren aurrean beldurra senti dezaketen gainontzeko laboristak. Batez ere "blairismoaren" arrakastaren lekuko eta onuradun izan ziren horiek. Kanpotik ikusita, Blairrek artikuluan darabilen paternalismoaren eta biktimismoaren konbinazioak galtzaile batena dirudi. Hein batean, Corbynen garaipena emantzat joko balu bezala aritzen da, agertoki horretarako prestatuz, hurrengo eguneko gatazka iradokiz. Agian, sinesten hasi beharko naiz ni neu ere.

Hilak 12an gertatzen dena gertatzen dela, "Corbyn fenomenoak" nazioartean eta batez ere europar ezkerren barruan eztabaida interesgarriak pizteko balio dezake. Baldin eta horretarako kapaz bagara, baldin eta gogoak baditugu. Orain arte auziaz irakurri ditudan gauza interesgarrienak Eskozian izango lukeen eraginari buruzkoak –Cat Boyd (@kittycatboyd) ekintzaileak gogoeta interesgarriak egin ditu, SNPren ezkerrean eta ezkerrean eztabaida piztu dutenak–, europar agertokiari buruzkoak –Syrizaren eta Podemosen harira aipatutako Owen Jones berarenak, apur bat partisanoak badira ere–, eta laborismoari buruzkoak izan dira –besteak beste, Seumas Milne (@SeumasMilne) kazetariak "The Guardian"-en bertan esandakoak–.

Niretzat Corbynen kasua beste zentzu batean ere bada interesgarria. Gailenduko balitz, sozialdemokrazia neoliberalizatuari «estatu kolpea» ematearen parekoa litzateke

Jeremy Corbyn gailenduko balitz, sozialdemokrazia neoliberalizatuari «estatu kolpea» ematearen parekoa litzateke hein batean. «Establishment»-ak, behintzat, horrela hartuko luke

hein batean. Gainera, munduko sistema kapitalista parametro kultural anglosaxoietan mugitzen denez, parametro horien barruan kokatu behar da, nire ustez, europar politikagintza ezkertiarra. Kritikoki, jakina. [Pertsonalki, agian, nahiago nuke alemaniarren markoan ematea, Die Linkeren parametroetan, adibidez, baina amildegi kultural orokorra handiegia iruditzen zait]. Hainbeste nabarmendu den "fenomenoaz" harago, sarean eta komunikazioaren erabileraz harago, Corbynen agenda eta programa aztertzei aukera legoke, zenbait auzitan desadostasunetik bada ere, ikuspuntu interesgarriak dituelako. Laborismoarentzat iraultzailea delako, baina, benetan iraultzailea izateko laborismoan irabazi behar duenez, oreka interesgarriak egiten dituelako. Gure kasuan, eztabaida horiek bultzatzeko prentsaren jokabidea bera aztertu beharko genukeela ere uste dut. •

LIBANO

Zaborretatik abiatutako mugimendua, Gobernua hankaz gora botatzeko prest

📁 GIZARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Zaborrak arazo bihurtu dira Beirut Libanoko hiriburuan eta agintarien ezgaitasunak herritarren haserre eragin du. Baita kalera protestatzera jaisteko gogoia ere. «As Safir» Libanoko egunkariaren arabera, «ez da inolaz ere edalontzi batean sortutako ekaitza, ezta asteburuko iraultza hutsa ere. Berritzen ari den eta etenik ez duen prozesua da».

Ez nuke nahi nik bizi dudana beste inork bizi behar izatea. Bakean bizi nahi dut. Libanon hema-zortzi komunitate erlijioso ditugu eta horiek guztiek jakin behar dute ezin dituztela besteak menderatu. Komunitateak elkarren aurka jartzeko garaia bukatu dira», esan zien kazetariei Sabah Mrad libanoarrek, Beiruten gaur zortzi egin zen manifestazioaren ondoren. Gorpil-aulkian joan zen manifestaziora, Libanoko zabor arazoa konpontzeko exijitzeaz gain, herrialdeko politika egiteko era bera ere aldatzeko ahalmena duen mobilizaziora joan gabe ez zuen geratu nahi-eta.

Joan den larunbatean milaka lagun elkartu ziren berriz ere Beirut hiriburuan, «Gobernuaren axolagabekeria» salatu eta «erabateko aldaketa», politikari berriekin, exijitzeko. Kiratsa Darizu mugimenduak («Tol3et re7etkom» deitzen diote) antolatu zuen manifestazioa, zaborren arazoak eraginda sortutako giza mugimenduak alegia. Hala ere, Beirutek duen arazoak herrialde osoko manifestariak erakarri zituen: gai zehatz bat bestelako aldarrikapenen iturburu bihurtu den seinale.

ZABORREZ GAINEZKA

Orain zabor krisi moduan eza-gutzen dugun arazoa uztailaren 17an lehertu zen, hiriburuaren hegoaldeko Naamehko zaborte-gi nagusia itxi zutenean. Orduan amaitu zen ere Sukleen konpainiarekin Beiruteko Udalak sinatuta zuen kontratua. Na-

amehn botatzen zituzten zaborrak Beirut hiriburuan eta Libano Mendia eskualdean sortutakoak ziren; «gutxi gorabehera Libanoko biztanleen erdia hartzen dituen eremua», Joey Ayoub blogariak azaldu duenez.

«Zaborrez gainezka gaude. Gobernuak aspalditik zekien Naamehko zabortegia betetzen ari zela eta aurki bertara zabor gehiago botatzerik ez zela izango, baina ez du ezer egin alternatibaren bat topatzeko, Beirutek sortzen dituen hondakinak ezabatzeko konponbide ekologikoren bat aurkitzeko. Hori egin beharrean, Gobernuak erabaki du hondakinak herrialde osoan banatzea, edozein puntutan, ondoan jendea bizi den edo basoren bat ote dagoen begiratu ere egin gabe. Ondorioak oso larriak izan dira ingurumenarentzat zein herritarren osasunarentzat», azaldu du blogariak.

HONDAKINAK BIRZIKLATU

Egoera horren eraginez sortu zuten Kiratsa Darizu mugimendua. Ingurumen adituen laguntzarekin konponbide jasangarriak diseinatzen dituzte, hondakinen kudeaketa udalek egin behar dutela defenditzeaz gain. Garbi daukate zaborren arazoa konpontzeko biderik egokiena birziklatzea dela. «Orain egun batzuk mugimenduko zuzendaritzarekin bilera bat egin nuen. Adin ezberdinetako pertsonak ginen bertan, gizonak zein emakumeak, eta talde etniko ezberdinetakoak. Askok genuen esperientziaren bat benetako aldaketak exijitzen dituzten mugimenduetan, bai-

info+

• **Libanoko protesten inguruko artikulua ingelesezko Wikipedian:**

https://en.wikipedia.org/wiki/2015_Lebanese_protests

• **Protestei buruz Libanoko blogariek sarean argitaratutako testuak, gaztelaniara itzulita:**

<http://es.globalvoicesonline.org/category/world/middle-east-north-africa/lebanon/>



na beste batzuentzat dena berria zen. Jatorri politiko ezberdinetakoak izan arren, guztiok ulertzen genuen, senez, kausa honek denoi parte hartzea exijitzen zigula», azaldu du Joey Ayoubek.

Talde etniko eta erlijioso ezberdinetako kideek bat eginda lan egitea nabarmentzen du blogariak, egungo Libanoren ezaugarri nagusia guztiz kontrakoa baita: herrialdearen historiaren eraginez, etniaren eta erlijioaren arabera hartzen dira makina bat erabaki (esaterako, Parlamentuko presidentek xiita izan behar du; herrialdeko presidentek, kristaua; eta lehen ministroak, sunita), eta horrek ustelkeriari zabaldu dizkio ateak. Eta herritarren haserreari.

«Ezin dugu gehiago. Agintariak ez dira inoiz gutaz arduratu. Beraien interesak baino ez dituzte kontuan izaten; herriari nola lapurtu, ez dute beste ezer buruan. Hona etorri naiz isilik ez garela geratuko aldarrikatzeko», esan zion joan den larunbatean Nadine Jordi abokatu gazteak Efe berri agentziari. Bere iritziz, libanoarrek «beste klase politiko bat» nahi dute, «eta libanoar guztiak legearen aurrean berdina izatea, faboritismo eta entxufeak behingoz alde batera uztea».

BEIRUTEKO HORMA

Orain arteko mobilizaziorik iskanbilatsuena abuztuaren 22an egindakoa izan zen. Milaka lagun protesta egiten, eta Polizia



Ezkerreko irudian, zaborrak sutan Beirut hiriburuan, autobideko ordainlekuaren ondoan. Eskuineko argazkietan, libanoarren jomugan dauden politikariak (goian) eta eguraldi txarrari aurpegi ona jartzen dion emakumea (behean).
AFP



herria isilarazi nahian. Ehunka zauritu izan ziren manifestarien zein agenteen artean. Agintariak horma handi bat eraiki zuten, protestak beren egoitzetatik urruti eduki nahian. Baina neurri horrekin manifestari gehiagoren gogoa piztea baino ez zuten lortu.

Handik astebetera egindako manifestazioan zuriz jantzitako gazte ugari zebilen. Mobilizazioaren segurtasun zerbitzua zen (500 lagun inguru, Poliziarekin eta Gurutze Gorriarekin koordinatuta), jai giroari eutsi eta probokatzaileak urruti edukitzeko (herrialde arabiarretan agintariak askotan bidaltzen dituzte, beraien aurkako sentitzen dituzten mobilizazioak zapuztu nahian). «Gure helburua da ma-

nifestariak ez daitezela Parlamentu ingurura joan eta Poliziarekin istiluak saihestea», adierazi zuen boluntario batek.

Musika entzuten zen nonahi, protestarekin lotutako abesti ugari batez ere, eta mozorrotutako herritar askok parte hartu zuen. Kronikek nabarmendu dute familia osoak bertaratu zirela, ume txikiak ere hartuta.

EGUZKIAK DISTIRA GEHIAGO

Era guztietako pankartak ikus zitezkeen abuztuaren 29ko manifestazioan. Batzuek beren ideiak azaldu nahi zituzten: «Zaborrak biltzea ez da nahikoa, konponbidea oinarritik birziklatzea da». Beste batzuek helburu potoloagoak zituzten: «Zuek alde egitean eguzkiak distira

gehiago egingo du, zuek gabe hobeto egongo gara».

Kiratsa Darizu mugimenduak ia egunero egiten ditu mobilizazioak. Agintariei esan die arazoa konpondu ezean, Libano osoan egingo dituztela protestak. Mohammed Machnouk Ingurumen ministroaren dimisioa exijitzen du mugimenduak, eta hondakinen arazoari irtenbide jasagarri bat emateko. Gainera, ekintzaileek Gobernuari exijitzen diote esplikatzeko zer egin duen aurrekontuek izandako superabitarekin.

Seguru asko azken eskari horrek eragingo zuen itsasertzeko Tripoli eta Sidon hirietatik manifestariak Beiruteraino joatea. Beste batzuek Bekaa bailaratik eta eskualde menditsuetatik

bertaratu ziren, Chris Kneyzeh gazteak egin moduan: «Azken astean egunero etorri naiz hiriburura manifestazioetan parte hartzera».

POLIZIAREN JARDUERA

Gazteak eusten duen pankartan eskari garbi bat irakur daiteke: «Kontuak ematea nahi dugu». Izen horixe jarri diote bere herriko ekintzaileek sortutako taldeari. Segurtasun indarrek manifestarien aurka egin dituzten gehiegikeriak argitzeko ikerketa bat eskatzen dute gazte horiek. Izan ere, munduko herrialde askotan gertatzen den moduan, segurtasun indarrek, kasu askotan, zapuztu nahi duten giza mugimendua indartu baino ez dute egiten beren baldarkeriare-

kin, eta horixe gertatu da azken bolada honetan Libanon ere.

Herritarrak bat eginda kalera irteten direnean indartu egiten dira, indartsuago sentitzen dira. Horregatik, horrenbeste jende kalean ikustean, askok bestelako eskariak plazaratzeko baliatzen dute aukera, eta Beiruteko kasuan argindar zerbitzuaren eta ur hornikuntzaren gabeziek bide horretatik lortu dute plazan azaltzea. Kontuan hartu behar da kasu askotan Europako mendebaldeko herrialdeetako salneurria ordaintzen dutela argindarrarengatik libanoarrek, baina, ondoren, jasotako zerbitzua ez da maila horretara iristen, ezta pentsatu ere!

Joan den igandean, manifestari arrazoia eman nahiko balie-

ke bezala, ia herrialde osoa argindarrik gabe egon zen denbora askoan. Gehiegizko eskaerak matxura bat eragin zuen goitentsio sarean, eta umorea sare sozialetan; «argindar konpainia publikoko norbaitek mugimenduarekin bat egin duela dirudi», zioen herritar batek.

Azken larunbateko manifestazioan parte hartzaile batzuk oso optimista zeuden. Mariam Dammour txaleko islatzaile bat jantzita zebilen, segurtasun zerbitzuko boluntarioetako bat baitzen. «Azkenean, jendea konturatu da gure politikariek ez dutela agindutakoa betetzen, ez dutela Estatua herritarren alde kudeatzen», zioen gazteak.

BETIKO ALDERDIEN BOTOAK

Houssam Ajjour 41 urteko abokatua ez zen iritzi berekoa: «Jendeak mentalitatez aldatu behar du, oraindik betiko alderdi politikoek boto asko biltzen dituzte-eta. Ez dut uste horrelakorik gertatuko denik».

Ajjourrek eskatutako mentalitate aldaketaren tankerako zerbaitek behintzat ikusi genuen joan den asteartean. Abuztuaren 29ko mobilizazio jendetsuan 72 orduko epea eman zioten Gobernuari beren eskariei erantzuteko. Epea bukatzeko ordu batzuk falta zirela, Ingurumen Ministerioa okupatu zuten 50 lagun inguruk. Mohammed Machnouk Ingurumen ministroaren dimisioa exijitu zuten manifestariak, mobilizazioa erabat baketsua zela nabarmenduz.

Zaborraren krisiak eragindako gainerako mobilizazioetan bezala, Libanoko bandera izan zen gehien erabilitako ikurra Ministerioan egindako protestan. Libanoko ereserkia abesten zuten lurrean eserita. Poliziak ordezkari batzuk bidali zituen beraiekin negoziatzeko, baina ez zuten gauza handirik lortu.

Lucien Bourjeily Kiratsa Darizu mugimenduko kideak AFP agentziari esplikatu zionez, Ministerioan jarraitzeko asmoa zuten, Machnoukek kargua utzi arte. Erantsi zuen Ministerioa epea amaitu aurretik okupatzea erabaki zutela agintariak uste-kabea harrapatzeko. Bourjeily

bera erietxera eraman zuten zaurituta astearte gauean, Poliziak Ministerioa hustean jipoitu ondoren.

«Hau gure Ministerioa da, guk babestuko dugu. Ez dugu segurtasun indarren beharrik», zioen manifestari batek ordu batzuk lehenago. Ministerioko langileei zein herritarrei beraiekin bat egiteko eskatu zieten.

«Iraultza kargatzen ari da, itxaron mesedez», dio goiko argazkiko pankartak. Behekoan, Kiratsa Darizu mugimenduko mobilizazioetan gehien erabili den ikurra, Libanoko bandera, manifestari askoren eskuetan. AFP



pen gisa bizi izan zuten egindakoa. «Aukera guztiak zabalik daude», esan zien kazetariei Asaad Thebien Kiratsa Darizu mugimenduko kideak: «Eskualde guztietan mobilizazioak egin daitezten lanean ari gara».

BULEGOTIK IRTEN EZINDA

Ironia puntu batekin, Thebien ekintzaileak erantsi zuen pozteko moduan direla: «Ez genuen lortu Ingurumen ministroaren dimisioa behartzea, baina bere bulegoan zortzi orduz egotera behartu genuen, eta hori ez zuen sekula egiten!».

Herritarrek agintariak estutzen ari dira, politikariek gero eta sinesgarritasun gutxiago duten herrialdean. Manifestarien ustez, klase politiko osoa da egungo egoeraren erantzule. Arazoen aurrean erantzun egokirik ez ematea leporatzen diete.

Politikarien ezgaitasun horren adibiderik garbiena Libanoko presidente berria aukeratzeko prozesuan ikus dezakegu. 2014ko maiatzaz geroztik presidenterik gabe dago Libano, Michel Suleimanek kargua utzi zuenetik. Dagoeneko hamasei hilabete pasa dira, baina egoera ez da batere aldatu. Parlamentuak berak ere sinesgarritasun gutxi du, 2009an aukeratu baitzuten herritarrek eta, tokatzen zenean hauteskundeak berriz egin beharrean, agintaldia luzatu eta hauteskundeak 2017an egitea erabaki baitu, ezegonkortasuna saihesteko asmoarekin. Edo aitzakiapean.

Nabih Berri Parlamentuko presidentea joan den igandean iragarri zuen iraileko lehen hamar egunetan elkarriketa prozesu bat jarriko duela abian geldialdi politiko horri amaiera emateko, baina inork ez du uste ezer aurreratuko duenik.

Joan den asteazkenean garbi ikusi zen politikarien ezgaitasuna. Presidente berria aukeratzeko bozketa egitekoa zen Parlamentuan, baina, diputatu askok ez azaltzea erabaki zuten, bertan behera geratu zen ahalegina. Hurrengo bozketa irailaren 30ean egitekoak dira. Beste hiru aste sinesgarritasuna galtzen.



Abbas MOMANI | AFP



IKUSMIRA

NABI SALEH HERRIA MAPAN IPINI DUTEN EMAKUMEEN AUSARDIA



Ramalatik gertu dago Nabi Saleh 550 biztanleko herrixka. Inguruan eraiki zituzten kolonia juduek Ein al Qaws iturriko urik gabe utzi zituzten herritarrak eta indarkeria ezean oinarritutako erresistentziaren bidea hartu zuten 2009ko abenduan, Bil'in herrikoek (Euskal Herriko brigadistek behin baino gehiagotan bisitatuta-

ko lekua) egiten duten moduan. Ostiralero egiten dituzte mobilizazioak, meskitan otoitz egin ondoren, baina normalean beraiek baino ez dute izaten egindakoaren berri. Azkenean Israelgo Armadako soldadu baten baldarkeriak eraman ditu hedabideetara Nabi Salehkoak: besoa hautsita zuen Mohamed Tamimi atxilotzea erabaki zuen militarrek protestetako batean, baina Nariman amak, Ahed arrebak, Nawal izebak eta Basem aita soldadua eta umea inguratu eta azkenean lortu zuten haurra etxera eramatea. Irudi hunkigarriak eskaintzen ditu Bilal Tamimi kazetariaren bideoak. Indartsuenak ez du beti nahi duena lortzen. Eskerrak!

joseangel.oria@gaur8.info

ETXERA BUELTAN

Poloniako Gobernuak munduan barrena bizi diren poloniarrek etxean nahi ditu

 **EMIGRAZIOA** / Ane Urkiri Ansola

Drama humanitario lazgarrien lekuko garen garaiotan, plan berritzaile bat ezartzeko asmoa du Polonian Andrzej Dudaren Gobernuak. Poloniar nazionalitatea duen oro etxera itzultzean datza plana. Aldi berean, baina, Europar Batasuna osatzen duten herrien artean errefuxiatuen banaketarako kuotak onartzeari uko egiten dio Poloniak.

Aurtengo udako gaurkotasunean migrazioak leku zabala hartu du. Egunak joan egunak etorri milaka lagunek erabaki dute beraien lurra utzi –gerra edo txirotasuna tarteko– eta bizitza lasaiago baten bila abiatzea. Egunero zorigaiztoko albisteak presente izan dira egunkari, irrati zein telebis-tetan. Drama humanitario lazgarrien lekuko gara. Eta askotan erantzule ere bai.

Azken egunetan Mazedonia eta Greziara iritsi dira milaka lagun, beraien burua arriskatu ondoren eta zailtasunez beteriko bidea gainditzeko prest. Leku horiek, baina, geltoki bat baino ez dira. Ibilbidea luzeagoa da. Hori nahikoa ez eta Mazedonia eta Serbiaren arteko mugan Poliziaren errepresio itzela jasan

behar izan dute milaka lagunek, haurrak barne. Trabaz beteriko bidea dute, bai itsasoan eta bai errepidean. Horren erakusle Austrian kamioi batean aurkitu dituzten 71 hilotzak.

Gorabehera horien joan-etorrian Poloniak azaleratu duen proiektu batekin egin dugu topo. Kanpoan bizi diren poloniar guztiak “etxera” itzultzeko asmoa erakutsi du bertako Gobernuak. Nazionalitate poloniarra duten 20 milioi herritar bizi dira Poloniatik at, baina horietatik heren bat dira Polonian jaiotakoak. Zifra horrek Andrzej Duda presidente kontserbadorearen kezka piztu du.

Munduan barrena aurkitzen diren poloniar gehienak azken 150 urteetan, gerra edo mugen mugimenduak medio, lekualdatu zirenen ondorengoak dira. Argentina, Brasil, Alemania,

Garai batean herrialdea utzi zuten poloniarrek alderantzizko bidea egin dezaten nahi du eskuineko irudian ageri den Andrzej Duda Poloniako presidenteak. Janek SKARZYNSKI - Andres TEISS | AFP





Ukraina eta Ameriketako Estatu Batuetan arbaso poloniarren bat duten biztanle ugari aurki ditza-kegu. Eta badira arrazoi ekono- mikoengatik mugitu direnak ere. Horren erakusle dira Irlan- da edo Erresuma Batura joanda- koak. Boterean zela, Tony Blair laboristak merkatu britainiarra ireki zien Europa ekialdeko lan- gileei. Poloniarrek ederki balia- tu zuten aukera. Bizitza hobea aurreikusiz edo, beraien herrial- dea atzean utzi zuten askok.

Irlandan biztanleen %3k dau- ka poloniar jatorria. Eta Erresu- ma Batuan poloniera da ingele- saren atzetik gehien hitz egiten den hizkuntza. Egoera hori ere ez da batere atsegina David Ca- meron egungo lehen ministro britainiarrarentzat. Erresuma Batuan immigrantei eskainita- ko gizarte laguntzak gehiegizko- ak iruditzen zaizkio, eta, horren erakusle, laguntzak jasotzen di- tuztenetako asko emigratutako poloniarrek direla adierazi zuen 2015. urtearen hasieran. Horre- gatik, migranteak gutxitze alde- ra, lege berriak proposatuko di- tu Europar Batasunean.

«BERPOLAKIZATU»

Bien bitartean, Andrzej Duda te- matuta dabil poloniar herritar- tasuna dutenak bere agintaldian Poloniara itzultzeko proiektua- rekin. “Berpolakizatu” izena ere eman diote egitasmoari, anbizio handiko plana dela gaineratuz. Poloniako Gobernua jakitun da konplexutasun handiko lana de- la. «Gure herrikide askok bizi di- ren lurraldeko nazionalitatea daukate, bertako hizkuntza da- rabilte eta ez dute gurea ezagu- tzen», azaldu zuen Grzegorz Schetyna Poloniako atzerri- ministroak berak.

Poloniarrek “etxera” ekartzea ez ezik, planaren barnean sartu- ko lirateke atzerrian herrialdea- ren irudia hobetzeko nahia eta kanpoan bizi den diaspora sus- traietara hurbiltzeko desioa ere; hala nola, poloniera bera indar- tzea. Horretarako, atzerrian dau- den elkarte poloniarrek giltzarri izan beharko lukete.

Baina Gobernuaren benetako kezkak populazioaren zahartze- an du muina. Jaiotze tasa baxua

info+

20 milioi: Munduan barrena dauden poloniarren kopurua •

Polonieraren

presentzia: Erresuma

Batuan gehien hitz

egiten den bigarren

hizkuntza da,

ingelesaren atzetik •

Populazioaren

zahartzea: Azken 25

urteotan 65 urtetik

gorako lagunen

kopuruak %50 egin du

gora Polonian •

du Poloniak eta 206orako popu- lazioaren heren bat baino gehia- go 65 urtetik gorako biztanleak izango direla aurreikusten da, Eurostaten datuen arabera. Izan ere, azken mende laurdenean 15 urtetik beherako biztanle kopu- ruak %40 egin du behera, eta, 65 urtetik gorakoak, berriz, %50eko igoera izan du.

Malgosia Wos soziologoaren arabera, Polonia 2004an Euro- par Batasunean sartu zenetik nabaritu da batik bat joera alda- keta. Gehienbat zona urbanoe- tan, non bikoteak zaharrago ez- kontzen diren eta askok haur bakarra izaten duten, edo bat bera ere ez. «Orain dela hoge- i urte pentsaezina zena», gainera- tu du soziologoak.

Arazo horiek behin betiko uxatzeko nahiak, ordea, hutsu- ne batzuk ditu Anna Przewoska Londresen bizi den poloniarra- ren arabera. «Polonian soldatak askoz ere baxuagoak dira eta gi- zarte laguntza gutxiago daude. Kanpoan aukera gehiago dauz- kagu», azaldu dio Efe agentziari. Ondo daki berak, izan ere, ikas- ketak egin eta lan merkatuan sartu ahal izateko joan zen Inga- laterrako hiriburura.

ERREFUXIATUAK HARTZEARI UKO

Herrikideak itzultzeko prestu da Polonia, baina jarrera guztiz kontrakoa du errefuxiatuei ha- rrera egiterako orduan. Uko egi- ten dio irmotasunez. Ez dago prest Europar Batasunak ezarri- tako banaketa kuotak errespetat- zeko. Europako Batzordearen proposamenak dioenez, Batasu- neko kide guztien artean banatu behar dira errefuxiatuak. Hala, Italia eta Greziara heldutako 40.000 errefuxiatu siriar eta eritrearretatik Poloniari 2.659 jasotzea dagokio, baita uneotan Europar Batasunetik at dauden beste 962 errefuxiatu ere.

Italia, Grezia edo Hungariak hartu dituzte migrante gehien. Poloniako zifrak hurbildu ere ez dira egiten, baina aurtengo le- hen sei hilabeteetan hartutako migrante kopurua bikoiztu egin da iazko zifrekin alderatuta. De- na den, gehienek Polonia geltoki moduan hartzen dute, Europa mendebalde baitute xede.



Ander Gortazar
Arkitektoa

Hundertwasser gainbegiratzuz

Hundertwasserren lana ezagutu nuenean 14 urte besterik ez nituen. Irakasle batek artista austriarraren liburu monografikoa klasera ekarri zuen, eta, artean Hundertwasserren lana testuinguruan jartzeko irizpiderik ez banuen ere, berehala harrapatu ninduten haren irudi biziek, forma eliptikoek eta bisio naturazaleak. Ordutik, Hundertwasserren poster bat dut zintzilik logelan, logela hori dagoen tokian dagoela: «*You are a guest of Nature, behave*».


Margolaria zen batez ere Hundertwasser; koadro, poster eta zigilu eder askoak ditu. Naturaren aldeko aktibista, eta, hein batean, arkitektoa ere bazen. Karreran ez genuen bere obra ikasi –arkitekturaren historian duen lekuak ozta-ozta duelako anekdota maila–, baina haren lana testuinguru egokian jartzeko aukera izan nuen.

Hundertwasserrek «marra zuzenak deshumanizaziorantz garamatza» esaten zuen momentu historiko berean, Le Corbusierrek poema-liburu bat eskaini zion angelu zuzenari, besteak beste esanaz «ikatz puska batez/ dugu/ angelu zuzena trazatu/ ikurra/ Hura da erantzuna eta gida/ izana/ erantzun bat/ aukera bat», funtzionalismoa eta arrazionaltasuna eztabaidaren erdian jarriaz. XX. mendeko arazoei erantzun bat ematen jakin zuen Mugimendu Modernoak –egokia ala desegokia, eztabaida genezake hori–, Hundertwasserrek gustuko ez zuen norabidean: «Marra zuzena erregela batekin koldarki marraztutako zerbait da, gogoeta eta sentimendurik gabea (...), zibilizazioaren hondamendiaren oinarri ustela».

Jarrera hori konstante bat da bere obra grafikoan, bai mezuetan («*Save the seas. Use public transport, save the city. Plant trees, avert nuclear peril*») bai eta estiloan ere. Arkitekturari dago-kionean, baina, iruditzen zait Hundertwasserrek “natura” ahotan hartzen zuela euskal herritar hainbatek “tradizioa” hartzen duen moduan –hau da, oker–, eta azaleko erabaki arbitrarioak direla haren arkitekturaren ezaugarri nagusia.

Zuhaitzak landatzea estalkietan –Mugimendu Modernoak ere egiten zuena, marra makurren beharrik gabe–, marra ez-zuzenekin konposatutako fatxadak –entzutetsuena, akaso, Vienako errauskailuarena–, horma eta zoru ondulatuak, detaile ez-estandarizatuen bilduma kaotikoa. «Naturaren eta gizakiaren arteko harmonia» ulertzeko modu erredukzionista, nire irudiko, urrun Buckminster Fuller edo Frei Ottoren ikerketa metodo-koetatik edota arrazionaltasunaren adibide den energia-efizientzian oinarrituriko arkitekturatik. Haren obra eraikia ikusten dudanean, are gehiago Vienan Hundertwasserhaus bertatik bertara ezagutu ostean, kosta egiten zait pintoreskismoa eta fatxadismo hutsa ez den zerbaitekin topo egitea. **Begirada onbera batetik manifestu baleko bat; zintzoago batetik Secession-en hondar batzuk, Gustav Klimt eta Egon Schiele pixka bat, Antoni Gaudiz zipriztindutako «pastiche» psikodelikoa.**

Eta hala eta guztiz ere, ezin ukatuko dut maitasun pixka bat hartu niola 14 urterekin, eta orduko bizipenen arrastoek pisu handiago dutela nigan jakintza akademikoak emandako argudioek baino. Orain bat ez, bi baitira logelan zintzilik ditudan Hundertwasserren posterrak. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Iraganak eta etorkizunak berriro egingo dute talka

O raintxe hasi berri den lanurte politikoa oso garrantzitsua izango dela esatea tokatzen da. Inoiz izan al da ba bestelakorik? Egia esan, baieztapen berberarekin ekiten diogu beti oporraldien bueltari. Topikoa da, baina ez gezurra. Eta aurten ere ez da izango, hainbat gertaera eta faktore tarteko:

1.- Estatu espainolean gobernu aldaketa etor daiteke. Beste gauza bat litzateke «erregimen» aldaketa egotea, eta, are gehiago, aldaketa horrek Euskal Herriko gaiari behar bezala heltzea. Baldintzak alda daitezke, baina sakoneko mugimenduak, etortzekotan, hemen bertan sortutako indar eta ekimenetik etorriko dira. Are gehiago, badirudi Estatu mailako indarrei ez zaiela euskal gaia agendan sartzea interesatzen.

2.- Euskal Herriko onarpen nazionala lortzeko eta autodeterminazioa egikaritzeko edozein estrategiak bi arazorekin egingo luke topo: estatuen berezko nortasuna (inposizioa ez den beste proposamen politikorik gabe, haientzat erabakitze eskubidea eta independentzia gauza bera dira, eta, horregatik, uko egiten diote erdibideko edozein bide negoziatzeari) eta EAJren ohiko jokabidea (ez dago Estatua-ren posizio endemikoari aurre egingo liokeen prozesu baten abiapuntuan egoteko prest, Kataluniako prozesuarekiko hartu duen distantziak argi erakusten duenez. Lau «familia handien» arteko akordioa behar dela esango dute jeltxideek, baina PSErekin hitzarmena egiteko aitzakia baino ez da izango, betiere hurrengo EAEko hauteskundeak zio eta funts).

3.- Gaur-gaurkoz gatazkaren ondorioetan ere EAJk ez du bidaide izateko asmorik, orain dela hilabete gutxi horretarako prest agertu bazen ere. Hauteskundeetatik indartsu irten delarik, bere eskaerak puztu egingo ditu etengabe (Aieteko garaian edo ezker abertzalearekin ondoren izandako harremanetan mahaigaineratu direnetik kanpo), aterabide faltak ezker abertzalea kaltetuko duela koan. Han eta hemen entzun ohi denez, Urkulluren Gobernuako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek jokabidea bereziki deigarria da, nonahi mesfidantza sortzeko ahaleginean omen dabilelako, Euskal Herrian zein nazioartean.

4.- Ezker abertzaleak egin zuen estrategia aldaketak sekulako lurrikara eragin zuen, bide berriak jorratzeko aukerak eta lorpen zehatzak ekarri baitzituen. Halere, lehen astinaldiaren ostean, geldialdia eta ahulguneak ere izan ditu. Estatuek ezarritako blokeo eta oztopoek zeresan handia izan dute horretan, baina badira beste faktore batzuk ere. “Zutik Euskal Herria”-rekin hasitako iraultzak ez du behar besteko, behar adineko jarraipenik izan, hainbestetan aipatu izan den kultura politiko berri bati osoki bide emateko. Gainera, egora eta betebeharrak azaldu dira urteotan.

5.- Esan bezala, estatuek –bereziki espainolak– eragin-kortasuna kendu nahiko diote potentzialtasuna handia erakutsi duen aldebakarreko strategiari. Ez dituzte gogoko hark eragin ditzakeen astinaldiak. PPren Gobernuak gatazkaren ondorioetan duen indarra aprobetxatu nahiko du oraindik ere, Parisen lerrokatzea behar-beha-

PPren Gobernuak gatazkaren
ondorioetan duen indarra aprobetxatu
nahiko du oraindik. Azken batean,
estrategia berritua katramilatze
presoen gaia erabiltzen du Madrilek

rrerzkoa izanik (ez zituen gustura hartuko Frantziako Justizia Ministerioari buruzko berriak). Azken batean, estrategia berritua katramilatze presoen gaia erabiltzen du Madrilek (paradoxikoki, ez dira gai berarekin ezker abertzalearen estrategia kaltetu nahi duten bakarrak, oso bestelako posizioetatik izanda ere).

6.- Sortu diren (Estatu espainolaren krisi orokorra eta Kataluniako prozesua, beste batzuen artean) eta sortutako (aldaketaren beharra eta gogoia –Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ikusi denez–, aliantza gune berriak...) baldintza objektiboen gainean, eskaintza taktikoak eta estrategikoak elkar elikatuz, indar nahikoa biltzeko eta eraginkor bilakatzeko –aldaketa modu batez edo bestez oztopatzen dutenak baldintzatzeraino– ahaleginen garaia izango da iragana atzean utzi eta egoera berriak erdietsi nahi dituen ororentzat. •

IKASTURTE HASIERA

Umeak eskolak jasotzen hasterako dena prest izan behar dute irakasleek

 **HEZKUNTZA /** Aimar Etxeberria Korta

Irailarekin batera lanera itzultzen dira irakasleak. Euskal Herriko hainbat txokotan umerik gabe egiten dute itzulera hori, umeak itzultzen direnerako dena prest izateko helburuarekin. Baina, zer egiten dute denbora tarte horretan irakasleek? Azpeitiko Ikasberri Ikastolako eta Zubietako Eskolako arduradunek kontatu digute.

Iritsi da iraila, eta oporren amaiera ekarri du berarekin. Bi hilabeteko oporren ondoren, ikastetxera itzultzea tokatu zaio milaka irakasleri. Batzuek umeak izan dituzte esperoan gelako lurra zapaldu dutenerako, beste hainbatek, aldiz, denbora tarte bat izan dute jardunera egokitu eta umeak iritsi bitarte arnas pixka bat hartzeko. Azken horiek, astebete inguruz, ikasturte berria prestatzeko aukera izan dute umerik ez izateak ematen duen lasaitasunarekin. Jardun horretan harrapatu ditu GAUR8k Azpeitiko Ikasberri Ikastolako eta Zubietako Eskolako arduradunak, eta umerik gabeko garai horretan egin behar izaten duten lanen inguruan hitz egin dugu. “Etxe barruko” lana izan ohi da, “isilpekoa”, baina behar-beharrezkoa ikasturtea bide egokitik jontan dadin.

600 IKASLE INGURU; BI LERRO

Ikasturte berrian 600 ikasle inguru izango ditu Azpeitiko Ikasberri Ikastolak, Beñat Azurmendi zuzendari orokorrak azaldu duenez. Seigarren urtea du zuzendari moduan, baina aurrez ere ibilia izan da irakasle gisa. Ondorioz, ongi ezagutzen du umeak eskolak jasotzen hasi aurretik garatu behar den jardun hori. Aitortzen du, ordea, irakasle soil baten edo zuzendari baten jarduna oso ezberdina dela: «Orain besteek egiten dutenaz ere arduratu beharra dut».

Aurreprestatketa lan guztiek komunean hainbat elementu dituztela dio Azurmendik: gelen

Lehenengo egunak irakasleen arteko bilerak egiteko erabiltzen dituzte. Bilerok irakasle berriei ongietorria emateko erabiltzen dituzte, baita ikastetxearen nondik norakoek berri eman eta ikasturte berriari begira hainbat kontu zehazteko ere. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



prestatketa lana, ikasleen zerrendak osatzea, lan egutegia zehaztea... Astebete inguru ematen dute hori egiten. Badu berezitasunik, ordea, Ikasberri Ikastolak: «Esan bezala, 600 ikasleren bueltan gabiltza. Gure ikastola bi lerroko ikastola da eta ikasle horiek 0 eta 18 urte bitarte dituzte; horrek, nahitaez, aurreprestatketa lanak modu ezberdinetan garatzera garamatza».

Azpeitiko Ikasberriren kasuan, lehenengo egunean bertan klaustroa egin zuten. Bertan, irakasle berriei ongietorria eman eta ikastolaren inguruko informazioa eman zitzaion: «Urteko erronkak edo ikasle kopurua, esaterako». Horrez gain, funtzionamenduaren inguruko azalpenak jaso zituzten berriek.

Oso ezberdina izan ohi da prestatketa lana irakasleen arteko rol ezberdinen ondorioz edota irakasle bakoitzak izango dituen umeen adina dela-eta. «Irakasle bat, era berean, tutore ere izan daiteke; ondorioz, gela

propioa izango du. Hortaz, gela prestatu beharko du bere nahi eta beharretara, izango dituen ikasleen zerrenda osatu beharko du... Etapa aldaketa ematen den kasuetan, gainera, bilerak egiten ditugu gurasoekin, etapa berriaren nondik norakoek berri emateko», azaldu du Azurmendik. Bilera horietako bat kurtso hasieran egin ohi dute, eta horien ardura ere izaten dute tutore diren irakasleek.

Zuzendaritza mailan, berriz, igarotzen ari diren lehen egun horiek antolatzea dagokie batez ere; ordutegiak zehaztu, bileren hitzorduak egin... «Tutore batek bere zerrendak eskuan izan arteko urrats horien guztien arduraz izango genduke zuzendaritza taldeko kideok», azpimarratu du. Era berean, gaineratu du azken orduko matrikulak egiten dituzten ikasleek ere lan asko ematen dietela, horiek geletan kokatu behar dituztelako.

Adinaren kontua ere ez da txantxetako. Irailaren lehen ber-



Azpeitiko Ikasberriren kasuan ezberdintasun handiak ematen dira prestakuntza lanei dagokionez irakasle bakoitzak ikasturtean izango dituen ikasleen adinaren arabera

Garrantzi handia ematen diote Ikasberrin kurtso hasieran irakasle berriei ikastolak dituen ildo estrategikoak azaltzeari, «guztiak izan daitezen ildoen garapenaren erantzule»

tan hasi ziren 0 eta 3 urte arteko haurren egokitzapen lanekin. Bi aste inguruko egokitzapenak planteatzen dituzte: «Denbora horretan gurasoak ikasgelan egoten dira eta aukera izaten dute irakasleek egiten duten lana ikuskatzeko. Kooperatiba garen heinean, gainera, gurasoak bazkide ere badira; hots, parte inplikaturik dira une oro».

Zentzu horretan, umearen egokitzapen prozesua izango da garrantzitsuena adin txikiko ikasleen tutore izango den irakasle batentzat, eta kurtsoan jorratuko duen gaitegia izango da garrantzitsuagoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan eskolak emango dituen irakasle batentzat. Baina guztiek hartuko dute denbora autofor-

makuntzarako, «ikaslerik gabeko denbora hau oso aproposa izaten baita horretarako».

Hasieran aipatu moduan, ikastolaren inguruko informazioa jasotzeko egunak izaten dira hasierakoak. Ikasberriren kasuan ikastola bezala dituzten helburuen berri emateko baliatzen dute, euren ildo estrategikoak azaltzeko. «Guk hiru urtera begirako ildo batzuk ditugu, irakasle guzti-guztiekin konpartitzen ditugunak eurak ere ildoen garapenaren erantzule izan daitezen», adierazi du Azurmendik. Batez ere, matrikulazioan –bigarren lerroa egonkortzera begira–, ikastolaren proiektua herri- eta bailarara zabaltzean eta helburu pedagogikoetan egiten du azpimarra Ikasberriko zuzendariak.

Baina eskolak hasi ostean ere badago zereginik eta zer erreparaturik. Adibidez, bizikidetza plan bat dute Ikasberri Ikastolan eta tutoreen lana izaten da kurtsoa hasi berri den garaiotan tutoretzak baliatzea ikasleei bizikidetza plana birgogoratzeko. Prest, dira, beraz Azpeitiko Ikas-

PRODUKTIBITATEA BULEGOAN: LANA KALITATEZ EGITEKO ESTRATEGIA TXIKIAK

Oihane Larretxea de la Granja

Profesional onak izan arren, egungo langileei egunerokoa planteatzeko moduak huts egiten diela uste du Jose Ignazio Azkue kudeaketa pertsonalean adituak. Produktibitatea lortzea ahalbidetu zein indarra galarazten dituzten ohiturak xehatu ditu EHUko ikastaroetan.

Sektore eta adin askotariko entzuleak, gizon eta emakume, bertaratu ziren Miramar jauregira iragan asteartean Jose Ignacio Azkue produktibitate pertsonalean aditua den donostiarrak eskainitako EHUko udako ikastarora. Mahai gainean helburu bakarra eta argia, baita anbizio handikoa ere: bulegoko egunerokotasuna kontrolatu eta lanean eraginkortasuna eta produktibitatea lortzeko teknikak ikastea, ondoren praktikan jartzeko.

Bertaratutako lagunei, laurogei inguru, galderak batak bestearen atzetik bota zizkien Azkuek, eta hatza begian sartuko ziela ere ohartarazi zien, hori baita, bere esanetan, lanean ditugun usadio txarrak azalarazteko modua. Zirikatzailea, bai, baina umorez, diskurtso erakitzailea eta bizia eskaini zuen, entzulea pentsaraztea lortu zuena. «Zuetako zenbatek egiten du lan planifikazio batean oinarrituta? Zuetako zenbatek egiten ditu bost bilera astean? Eta horietatik, zenbat dira benetan beharrezkoak?»... eta abar, eta abar.

Pantaila handian, Ferrari Testarossa baten irudia erakutsi zuen, baina diseinuan arazo bat zuen: gurpilak beharrean, tanke baten oinarria zuen autoak. Hori da, Azkueren aburuz, gaur egungo profesionali gertatzen zaiena: oso ondo prestatuta daude, lehiakorrak dira, motibatuta daude, baina egunerokoak huts egiten die. Besteak beste, bakoitzak bere lana behar bezala egiteko



berrin kurtso berriari ekiteko urte batzuk atzera abiatu zuten premisatik: «Ikasleei ikasten irakatsi behar zaie. Irakaslearen lan nagusia ez da irakastearena, ikasleak ikas dezala baizik».

ESKOLA TXIKIAK; GERTUKO ESKOLAK

Azpeitiko Ikasberrin 600 ikasle ingururen etorreraren zain badaude, Zubietako eskolara gerturatuko diren haurrak 50 inguru izango dira; esperoan, berriz,

sei irakasle izango dituzte, Rosa San Roman eta Jugatz Illarramendi horien artean. Zuzendari eta ikasketa buru dira, hurrenez hurren, San Roman eta Illarramendi, eta ikasleak etorri bitarteko aurreprestaketa lanetan harrapatu ditu GAUR8k. 2 urte-tik Lehen Hezkuntzako bigarren maila arteko haurrak dituzte Zubietako Eskolan, hiru multzotan banatuta: 2-3 urte, 4-5 urte eta lehen eta bigarren maila. «Ez

ditugu adinaren arabera banatzen umeak, hiru multzo horietan baizik», azaldu du San Romanek. Gainera, urtean zehar egiten dituzten hainbat ekimen direla-eta, ume guztiak elkartzeko aukera ere izaten dute.

Zubietako Eskolan ere irakasleen arteko klaustro batekin ekin zioten prestakuntza lanari. Bertan funtzionamenduaren inguruko erabakiak hartu zituzten, metodologiari, administra-



Irakasleak gelak txukuntzen topatzea edo euren arteko bilerak egiten ikustea ohikoa izaten da irail hasieran, umeak eskolan hasi gabe daudenean.
Gorka RUBIO - Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

zioari eta lan estrukturei dagozkienak. Pare bat orduko bileran, Zubietan lur hartu duten irakasle berriei eskolaren inguruko informazioa emateko denbora ere hartu zuten.

Illarramendi da irakasle berri horietako bat. Bera, adibidez, txikienekin arituko da: «Beraiek egin ditzaketen mugimenduak ari naiz aintzat hartzen gelaren antolaketarako». Tutore izateaz gain, aurrez esan bezala, ikasketa buru ere bada bera. Eskola

garaian jasaten dituen etenaldiak aipatu zituen: posta elektronikoa, deiak, beste lankideen solasaldiak...

Posta elektronikoari dagokionez, denbora eskaini zion. Lanerako erreminta izan badela esan zuen, baina bere kudeaketa zuzena garrantzitsua ere badela erantsi zuen. Azkuek berak ez dizkio hamabost minutu baino gehiago eskaintzen –«hots, beti ogibidearen arabera», esan zuen–. «Zuetako zenbatek jasotzen ditu berauekin zer egin ez dakien mezuak? Leihua itxi eta gerorako utziko duzue askok eta, hori, lana atzeratzea baino ez da. Lana zehaztu egin behar da», aholkatu zuen. Distrakzioak tarteko, langilearen produktibitateak nabarmen egiten du behera. «Ez duzue lan gehiago egin behar, baizik eta kalitate handiagoarekin. Hain justu, produktibitatea lan gutxiago egiteko da», esan zuen.

Eskaini zituen datuen arabera, batez beste, langile batek lan jardunaldiaren %25 mezuak bidaltzen eta erantzuten ematen du. Egunean 56 etenaldi edo distrakzio izaten ditu eta hilean 30 ordu xahutzen ditu probetxurik ez duten bile-

retan. Bilerei dagokionez, adibidez, «soil-soilik ezinbestekoak diren bileretara joatea» gomendatzen du. «Egun dauden baliabideekin, bilera informatiboen edukia postaz bidal daiteke, norberak hobekien datorkionean kontsulta dezan». Zentzu horretan, errezeloak azaleratu ziren. «Nola esango diogu hori nagusiari?», galdengin zuen parte hartzaile batek. «Nagusiari hitz egin egin behar zaio, gauzak azaldu, zertan ari garen argitu. Eskuartean dugun lana oso garrantzitsua bada, hura bukatzea ezinbestekoa, azaldu argudio objektiboekin». Jakitun zen Azkue langileen gehiengoak ez duela egiten. Horren ordez, muturtuta joaten gara bileretara. «Gehienek sentituko duzue ardura asko dituzuela zuen gain, eta, bestetik, denbora gutxi ardurok betetzeko. Gakoa, edo arazorik handiena –jarraitu zuen–, egin beharreko zereginak zeintzuk diren arrakastaz aukeratzea da».

LAN ZERREDA ETA ERABAKIEN GARRANTZIA

Produktibitatea pertsonala dela eta ez profesionala iritzita, une bakoitzean probetxu handiena ekarriko duen –norbera-





Prestaketa lan ezberdinak egin behar izaten dituzte Zubietako Eskolako irakasleek ikasturte hasieran, tutore izateaz gain bestelako ardura batzuk ere izan ditzakete-eta, ikasketa buru kasu

Eskolaren beraren garapenerako beharrezkoak diren funtzioez gain, bestelako lan batzuk ere badituzte Zubietan, hala nola konposta gunea eta baratzea. Gurasoen esku geratzen dira maiz

txikietan maiz gertatzen den fenomeno.

Ikastetxe batek bere garapenerako behar dituen zutoinez gain –zuzendaritza, ikasketa burua eta idazkaritza–, Zubietan bestelako funtzio batzuk ere bete behar izaten dituzte, ordenagailuen mantenua, konposta gunea edo baratzea kasu. «Horiek ere ardurak behar izaten dituzte, eta eskolaz kanpoko jendea izan ohi da, guraso eta herritar xumeak normalean», azaldu du

San Romanek. Hori baita eskola txikiek duten abantailatako bat, sortzen dute komunitate izaera.

Izaera hori ikasgelan ere nabaritzen dela dio Illarramendik: «Gurasoekin dugun harremana estuagoa izan ohi da beste eskola batzuekin alderatuta, eta gurasoen inplikazioa ere askoz handiagoa dela ikusten da. Zuzenean hartzen dute parte proiektuetan; eskola beraren dinamikan txertatuta daude». Aldaketa bat izan da berarentzat

eskola txiki batera pasatzea, nahiz lehendik ere antzeko ikastetxeetan ibilia izan den: «Batez ere, lan mota aldatzen da. Ardurak bat baino gehiago hartu behar izan ditut, eta gelan adin ezberdinetako umeak izatea ere berezia da, aberasgarria».

Adin ezberdinetako umeak gelan berean izatean irakaslearen rola ere aldatu egiten dela dio San Romanek: «Orojakeia izateari uzten dio, helduenek gaztetxoenei irakasten baitie-

te». Eta metodologia ere ezberdina dute. Proiektuka egiten dute lan Zubietan, une oro gauzak bere osotasunean landuz, eskulibururik gabe. «Buruari buelta asko ematea eskatzen digu horrek», dio Illarramendik. Azken urteetan hainbat aldaketa eman direla onartzen du San Romanek, baina, aldaketok, teknologikoak baino pedagogikoak izan direla adierazi du: «Egun ikasten irakasten diegu umei».

rentzat zein enpresarentzat– zeregina hautatzea garrantzitsua da. Hitz gutxitan esanda: aurrera egiten laguntzen duten zereginak hautatu behar dira.

Horretarako, Azkuek «usadioak» deitu zituenak bereganatu behar dituzte langileek. Lan mardula, aditu donostiarraren esanetan. Burua hustu, egin aurretik pentsatu, perspektiba hartu, arreta osoa jarri eta distrakzioak behar bezala kudeatu –«distrakzioak bonba bat dira produktibitatearentzat»–. Jarrera horiek lan jardunean txertatzea izango da erronka, pixkanaka, presarik gabe, izan ere, «produktibitatearena maratoia da, ez esprinta».

Burua hustu ahal izateko, gogoratzen ditugun betebeharrak orri batean idazten joatea gomendatu zuen Azkuek. Hori da ardurak atontzeko modu eraginkorra, izan ere, askotan, etxean laneko ardurez gogoratzen gara eta alderantziz. «Bulegoan gaude eta, bat-batean, haurarentzat fardelak ez ditugula erosi gogoratzen dugu. Eta etxean afaria egiten, Luisi ez ditugula eskatu digun txostena eman. Hori aldatu beharra dago».

Hobekuntza lortzeko, motibazioa oso garrantzitsua da, aldatzeko aitzakiak alde batera uztea bezainbeste. «Ez dut zertan egin behar, ez da une aproposa, ez dakit noiz egin...». Aldatzeko asmoa hutsa ez da nahikoa, ekintzak dira norabidea aldatzen lagunduko dutenak. Eta hots, beste gako bat: pazientzia izatea.

Aldaketarako ibilbide horretan, ohikoak dira hainbat akats. Adibidez, denboraren kudeaketan pentsatzea. «Produktibitateak kalitatearekin du zerikusia, ez kuantitatearekin», nabarmendu zuen Azkuek. «Enpresan kalitatez lana egiteagatik gogoratu zaituztete».

Produktibitate faltak, gainera, bere eraginak ditu osasunean eta bizitzan: estresa, frustrazioa, motibazioa galtzea, etsipena... eta «ailegatzen ez garela ikustean, are eta lan gehiago egiten dugu, nekea erantsiz. Ordu estrak, gainera, beste betebeharrak batzuei kentzen dizkiegu: etxeari, familiari, aisialdiari, zaletasune...».

Garaiak aldatzearekin batera, lan egiteko modua, eta lanbideak, aldatu egin dira. Gaur egun, lana agerikoa ez dela esan zuen. «Bulegora iritsi eta ez dakigu zein

den egun horretan zain dugun lana, eta betebeharrak amaitutzat noiz eman ere ez dugu jakiten. Behin lan batek bere helburuak bete dituenean, amaitutzat eman. Perfekzionismoa produktibitate ezaren iturrietako bat da», uste du.

Erabakiak hartzea ere garrantzitsua da eraginkortasuna lortzeko. Adibidez, onartu gauza gehiago dagoela egiteko denbora baino, eta, beraz, gauza batzuek itxaron egin beharko dutela. Egin inbentarioa betebeharrekin eta egiten joan. Hemen «urgente» deitzen zaien lanetan jarri zuen arreta. «Gehienek ez dute halako premia, ez dira hil ala bizikoak. Ekidin etiketa horiek, estresa sortzen dutelako».

Egin behar diren eginkizunen artean «gako» direnak bereiztea gomendatzen du Azkuek, gure lana hobetuko dutenak lehenestea. Esaterako, irakasle batek bere irakasgaia aberasteko metodologietan pentsatu behar du edo zailtasunak dituen ikaslea nola lagundu –azterketak zuzentzea tramitazio gisa hartzen du–.

Azken oharra: «denbora ez da urrea». Denok ditugu egunean 24 ordu. Bulegoan ez da denbora kudeatzen, lana baizik.

OPOR OSTE

DUELA 5 URTE



GAUR EGUN



iRRITZIA:



Ainara
Azpiazu
«Axi»

EREITETIK HAZTEN

Erroak ez ote zaizkigun ahazten ari...
Horiek berreskuratzen dator Sustraibarri

 **JENDARTEA /** Maialen Arratibel Garcia

Ametsei esker bizi omen gara. Horiek lortzeko bidean, ordea, ezinbesteko giltza da norbanakoaren barne oreka eta naturarekin nolabaiteko harremana mantentzea. Horrek batzen ditu Sustraibarri elkarteko kideak. Hainbaten ametsak bat egiten ahal zutela ikusita, bideak elkartu eta etorkizuna batera eraikitzen hastea otu zitzaion.

Norbanakoen emozioei eta hauen kudeaketari ematen diegun garrantzia hutsala dela. Eta behinola naturari erakutsi genion miresmen hura, desagertzen joan dela asfaltoaren mesedetan, harekin zortetan egoteraino. Hari mutur ho-

riei tiraka, korapiloak askatu eta inoiz amestutakoa gauzatzeko nahitik sortu zen Sustraibarri. Sonia Etxenausia eta Goizane Arce elkarteko kideek tarte bat hartu dute irakurleekin beraien bizipenak konpartitzeko.

Proiektuari, hasiera batetik, Etxenausiak ekin bazion ere, gaur-gaurkoz bost dira elkarrekin eusten duten zutabeak; Maria

Sustraibarri elkarteko kideak, Eskoriatzako Eraña auzoan.
Mikel ZABALETA eta Mikel SERRATO

Nafarrate, Iratxe Atxa, Naiara Corcuera, Goizane Arce eta Etxenausia bera. Gizarte langilea ogibidez, iritsi zitzaion une bat non ikusi zuen gizarteratze zerbitzuek ezer gutxi eskaintzen zutela norbanakoen garapen pertsonalari begira. «Sentitzen nuen gizarteratze proiektuek, programek eta, oro har, zerbitzu guztiek askoz ere integralagoak izan behar zutela».

Etxenausiaren ustez, lan munduratzeko oso kontuan hartzen den zerbait da horrelakoe-tan, baina, hori ez bada norbanakoaren bizitzako beste arlo batzuekin batera lantzen, ez dio berak zentzu handirik ikusten. Lan munduratzeko «garrantzitsua» dela, «oso», badaki, baina horrek osotasun baten atal bat behar du izan, haren irudiko. «Zertarako balio du soldatapeko lan batek norbera ez badago emozionalki osasuntsu?», galde-tzen du, irmo. Sendotze horren





bidean, egiteke lan handia «ze-
goen, eta dago oraindik ere».

Arce ere iritzi berekoa da. «Pertsona asko ezagutu geni-
tuen gizarteratze taldeen ba-
rruan, lan bat lortzen zutenak
baina lehenago edo geroago lan
gabezia gelditzen zirenak be-
rriro». Sakoneko zerbait zegoen
hor inork kontuan hartzen ez
zuen. Euren filosofiaren arabe-
ra, bizitzaren osotasunean zer-
baitek huts egiten badu, gauza
jakina da denborarekin gainon-
tzeko «guztia» ere desorekatuko
dela.

Hortaz jabetuta, Etxenausiak
beka bat lortu eta bere barruko
nahi hori garatu ahal izateko
aukera izan zuen, Saiolan Enpre-
sen eta Berrikuntzaren Zentroa-
ri esker. Saiolanek deialdi bat za-
baldu zien bailarako gazteei, sei
hilabetetan zehar nork bere
ideia egia bihurtzeko balioko
zuen. Arrasateko gazteak gara-
pen emozionala gizarteratze
zerbitzuetan txertatzea zuen xe-
de. Hala, Iratxe Atxa tutorea-
kin batera proiektu bati ekin
zion, zeinaren bihotzean senti-
menduen kudeaketa egongo
zen. Horrez gain, formakuntza

Goizane Arce, Katibi
zalditegian zaldiekin
lagunduriko terapia
gidatzen.
Mikel ZABALETA eta Mikel
SERRATO

berezitua eskaintzea zen beste
helburu bat, betiere lehenengo
sektoreari begira egongo zena.
Hori izan zen hasierako plante-
amendua, eta, «zorionez», dio
Etxenausiak, erakunde ezberdi-
nen sostengua jaso zuen haien
egitasmoak: Landa Garapen El-
kartea, Lanbide, Hazi Fundazioa,
eta Nekatur, besteak beste. Eta
behin puntu horretara iritsita,
galdera da: nortzuk izango ziren
gizarteratze prozesuan parte
hartuko zuten norbanakoak?
Bada, Etxenausiak argi zuen
aniztasuna izango zela ezauga-
rrietako bat. Langabezia zeu-
den pertsona batzuk, genero in-

darkeria jasan zuten emakume-
ak, etorkinak, bestelako arazoak
zituzten pertsonak... Behin lane-
an hasita, garapen emozionala
Beasaineko Pagorriaga base-
rrian hasi ziren lantzen, anima-
liekin zein ortu edo naturako
elementuekin. Horrez gain, ne-
kazaritzan teknikari izatea ahal-
bidetuko zien formakuntza jaso
zuten guztiek, bizileku baime-
nik ez zelako eskatzen. «Horrez
gain, auzolanak egin genituen
bailarako zenbait baserritan.
Horien helburua zen norbana-
koaren sare soziala handitzea,
ezagutza elkarbanatzea, natura-
rekin kontaktuan jartzea...».

**Sustraiabarri elkartekoen filosofiaren arabera,
bizitzaren osotasunean zerbaitek huts egiten
badu, gauza jakina da denborarekin
gainontzeko guztia ere desorekatuko dela**

**«Gu hainbeste arrazionalizatu gara, hainbeste
ikasi dugu burutik, ezen gorputzarekin dugun
harremana desagertu dela ia. Nahiko genuke
alderdi irrazional hori berreskuratu»**

Proiektuaren azkenengo fa-
sea, ordea, lur sail bat lortzea
zen, bertan etorkizunari forma
eman ahal izateko. Hor etorri zi-
ren arazoak. «Inbertsio handia
zen, eta gure baliabideekin ezin
izan genuen ezer lortu». Beraz,
hor bukatu zen Sustraiabarri De-
bagoiena. «Egia da parte har-
tzaile askok erdietsi zutela au-
rreikusitakoa». Batzuek beraien
proiektuak martxan jartzea lor-
tu zuten, eta beste hainbat lane-
an hasi ziren.

Hari horri jarraipena emateko
asmotan elkartea sortzea eraba-
ki zuen azkenean Etxenausiak,
diru laguntzak lortzeko bide ba-
karra hori izango zela ikusita.
Pausu hori ez zuen, ordea, baka-
rrik eman. Arestian aipatutako
beste lau emakume izan zituen
bidelagun. Eta horrela sortu zen
duela bi urte, gaur Debagoienan
Sustraiabarri izenez ezagutzen
dutena.

AMETSAK EREITEN

Gaur egun, Sustraiabarri elkartea
gizarte lanean, hezkuntzan,
agroekologian, animalien bitar-
tez lagundutako terapietan eta
gizarte berrikuntzaren arloetan
profesionalak diren lagunek
osatzen dute, nork bere ametsak
erein nahian. Hala, askotariko
ekintzen bitartez, honako hel-
buruak lantzen dituzte: garapen
emozionala, ingurugiroaren
zaintza, pertsonen eta gizarte-
aren ongizatea, pertsonen eta na-
turaren arteko harremanaren
indartzea, eta, azkenik, landa
eremuaren balio soziala eta eko-
nomikoa sustatzea.

Jarduera esperientzialak lan-
duz eta emozioetan oinarrituz,
parte hartzaileek pertsona eta
talde gisa garapenerako baliabi-
deak eskuratzea bilatzen dute.
Alde batetik, elikadura buruja-
betzaren inguruko kontzientzia
piztea helburu duten saioak egi-
ten dituzte, Aramaion. Tailerrak
eta bisita gidatuak eskaintzen
dituzte ideia horren bueltan,
ipuin eta musika egokituen bi-
dez lagunduta. Ogia egin, ortua
bizi, haziak erein eta fruituak ja-
so. Deialdiak irekiak dira, beraz,
gogoia da eskakizun bakarra.

Arцерen eskutik eskaintzen
dute Sustraiaberrin zaldiekin la-



gunduriko terapia. Gizarte bazterkeria arriskuan daudenei bideratuta badago ere bereziki, edonorentzat da terapia onuragarria. Zornotzako Katibi zalditegian egiten dira saioak, eta, normalean, banakakoak izan ohi dira. Ordubeteren bueltan, beharrian ezberdinak lantzen dira, betiere pertsona bakoitzaren premiei egokituta. Errehabilitazio fisikoari begira, muskulatura indartzea, eta oro har, tonu muskularra hartzea bilatzen da hipoterapiaren bidez. Eta bestetik, ekinoterapiaren bidez, pertsonaren alderdi psikologikoa lantzen du Arcek zaldien laguntzaz; konfiantza eta autoestimua haztea, emozioen kudeaketa lantzea, eta frustrazioak kudeatzeko baliabideak garatzea bilatzen da, besteak beste.

Emozioei eskainitako tailerak dira Sustraibarriko beste ardatzetako bat. Lidergoa, ametsen identifikazioa, sentimenduen kudeaketa, gorputza sentitzen eta arrazoa alde batera uzten ikastea... Behar horien bueltan, txakurrekin eta ortuko elementuekin egiten dute lan Arcek eta Etxenausiak. Saioak

AUZOLANEAN, EMAKUMEEN MUNDU MARTXARI HARRERA

Martxoan ekin zion ibiliari Emakumeen Mundu Martxak. Kurdistanen lehen pausuak eman eta gero, Europa ia osoa zeharkatu eta irailaren 28an emango dio Euskal Herriak ongietorria, “Gure gorputzak gure territorioak” lelopean. Urriaren 4an egitasmo ibiltariari agur esateko unea iritsiko bazaigu ere, Sustraibarrin beraien aletxoak jarri eta aldarrikapenarekin bat egiteko aukerari ez diote ihes egiten utziko. Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxarentzat «sarean lan egitea eta aniztasuna kudeatzea» helburu izanik, behar bereziak dituzten pertsona talde batekin elkarlanean, hainbat ekintza antolatuko dituzte Meatzerreka auzoan. Izan ere, Arrasateko Udalaren laguntza tarteko, hiru hektareako lursail batean auzolanerako grina eta ilusioa sustatzea du xede Sustraibarrik. Hala, Bergaran sortutako Naturtzaindia elkarte ekologistarekin eta Arrasateko Besaide mendi elkarterekin batera antolatzen dituzten askotariko proiektuen baitan, Emakumeen Mundu Martxari ongietorria emateko ideiak ontzen ari dira. Ez da nolanahikoa elkarte Meatzerreka auzoan egiten ari den biziberritze lana. Izan ere, Udalak erositako lurretan, bertako biodibertsitatea berreskuratzea xede duten ekintzak antolatzen dituzte, betiere edozein herritarri parte hartzeko gonbita eginda. Auzoak urte luzetan jasandako kalteak zuzentzeko, eta bertako egoera orekatzeko beharrari erantzunez, esaterako, 400 zuhaitz landatu dituzte herri-lan ezberdinei esker. Ekintzetarako finantzaketa Udalak ematen du, baina, proiektuen planifikazio eta prestaketa osoa Naiara Corcuera Sustraibarriko kideak egiten du.

Sustraibarri elkarteko kideak, Oñatiko Institutuko gazteei elikadura burujabetzaren inguruko tailerra eskaintzen. Mikel ZABALETA eta Mikel SERRATO

izaten ari diren arrakasta «emozioez hitz egiteko dugun ohitura ezari» egozten diote. «‘Nola sentitzen zara orain?’ galdetze hutsarekin barrenak aztoratzen zaizkigu, ez gaudelako hori erantzutera ohituta». Ipuin batekin ekiten diote saioari, «ipui-netik momentura etortzeko», eta ondoren dator aurkezpen emozionala, non izenak esan ordez norberak nola sentitzen den esan behar duen.

Behin hasierako tentsioak askatzen hasita, txakurren laguntzarekin lantzen eta ikusten da «nola eragiten duen besteengan gure egoera emozionalak, eta besteena gudan». Horren helburua zera da, ordea; konturatzea «guk geuk erabaki dezakegula» zein jarrera hartu emozio jakinen aurrean. «Txakurrekin hori ezin hobe antzematen da; zuk lasai egotea erabakiz gero, txakurra ere lasaituko da, ziur», azaldu du Arcek. Txakurrak erabiltzen dituzte, ez direlako izaki arrazionalak. «Gu hainbeste arrazionalizatu gara, hainbeste ikasi dugu burutik, ezen gorputzarekin dugun harremana desagertu dela ia. Nahiko genuke, tailer horien bidez, berreskuratzea gure alderdi irrazional edo sentibera hori». Horrez gain, ortuko elementuen bidez «bizitzan pilatutako harriak» identifikatzea bilatzen dute, «nor bere ametsetara hurbiltzeko». Amets hori irudikatzen duen hazi bana ereiten bukatzen dute saioa, landatzen den oro «ondo» zaindu behar dela gogoratuz.

Azkenik, Etxenausiak, Manex Arriolabengoa gitarristaren laguntzaz, ipuin musikatuak eskaintzen ditu. Diotenez, ipuinek gizakion bizipenetatik, mitologiatik, naturatik, eta, batez ere, emozioetatik bidaiatzeko aukera ematen digute. Hala, gai ezberdinak jorratu nahian, ipuinetako batek emakumeen aurkako tratatu txarrak ditu jomugan. Beste batek, ingurugiroa zaintzearen aldeko mezua darama.

Erroetara bueltatu eta sustraiak zaintzera dei egiten duen etenik gabeko mezua zabaltzen jarraitzeko asmoa dute Sustraibarrin. Informazio gehiago www.sustraibarri.com atarian.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Laugarren hiruhilekoa amaitzen denean

Lankide batek esan ohi du ikasturtea haurdunaldiaren tankerakoa dela. Ez dakit haren begietan zerk egiten dituen antzekoago, bien iraupen bertsuak ala bien amaierak sortzen duen urduritasunak, zain egoteak, amaitzeko desioak... Usteak uste, Euskal Herriko heziguneak prest dira beste ikasturte bati ekiteko. Dagoeneko eskolan hasi ez diren ikasleak aste honetan bertan hasiko dira. Hezitzaileek tentuz atondu dituzten gela txukunak aurkituko dituzte, koaderno berriak, aspaldi ikusi gabeko lagunen aurpegi irribarretsak. Udako hilabeteetan isilik egon diren heziguneak zalapartatsu bihurtuko dira berriro. Nagiak ezin astindu agertuko dira asko, berriak sortzen duen zirrarez besteak, eta erronka berri baten hasierak sortzen duen emozioz beste batzuk, zergatik ez! Eta hezkuntzak ekainean itxiko den ziklo berri bati emango dio hasiera.

Denbora arraroa da opor denbora hori. Etxekoentzat luzegia eta hezitzaileentzat, berriz, motzegia, egutegiak denentzat egun kopuru bera era-kutsi duen arren. Nolakoa iruditu ote zaie ikasleei?

Atzean geratu zen ekaina. Atzean etxekoan joan-etorriak heziguneetara, notak, txostenak, ebaluazio kontseiluak, aholkuak, iradokizunak... ikasturte amaierako zurrunbiloa. Ikasleen ebaluazio zehatzak egin zituzten hezitzaileek. Saiatu ziren ikasleen lana ebaluatzen, eta hori, gehienetan, nota batean jasota geratu zen, edo, kasurik hoberenean, txosten batean. Ikasturtean zehar neska-mutilek hezigunean egindako lanaren berri eman zitzaien etxekoei eta administrazioei. Gehiegitan, ikasleak lortu edo gainditu ez zuena gelditu zen agerian, nabarmenduegi, akaso.

Etxekoek hezitzaileen ahotik jaso zuten ikasleen ibileren berri. Gaindituak, bikainak, gainditu gabeak eta errekupeatu beharrekoak aipatu ziren. Eta haiekin batera, baita ere, ikasle hobeak, pertsona zintzoagoak eta langileagoak izatea lortzeko aholku sorta, askotan.

Etxekoek guztiak entzun eta jaso zituzten. Eta orduan hasi zen beren denbora, ikasturtearen laugarren hiruhilekoa, etxekoak beren neska-mutilen heziketaren arduradun ia bakarrik bilakatzen diren denbora.

Interesgarria litzateke oso -igual beharrezkoa-, laugarren hiruhileko horren ondotik hezitzaileek neska-mutilen gaineko txostena jasotzea etxekoan aldetik. Ekainean, ikasturteko azken ebaluazioan, aipatu zirenetatik zenbat hobetu diren eta zenbat diren ekainean baino urrunago daudenak orain. Nola joan den denbora hori, hitz egin zirenak bideratu ote diren. Ez dakit nonbait egiten ote den antzeko ekimenik, baina erabat aberasgarria eta interesgarria izango litzateke, bai etxekoentzat eta baita hezitzaileentzat ere. Balio dezake, gainera, beste aldeak egiten duen lanaz hobeto ohartzeko. Etxekoan eta hezitzaileen arteko elkarlanaren seinale garrantzitsua litzateke, gainera.

Ezagutu ditugu uda bakar batean urteko lana pikutara bota diotela sentitu duten hezitzaileak. Nola hala bideratzea lortu zuen ikaslea “basati” bihurtuta nola itzuli den ikusi duena. Udak, hain luzea den denbora horrek, arauak eskas bilakatzen diren garaiak, hartzea hainbeste kostatako errutinak galtzen diren sasoiak utzitako ajeak. Haien ondoan ezagutu ditugu ere eskolak noiz hasiko zain dauden etxekoak. Eskolan hasi eta hezitzaileek anabasaren erdian ordena pixka bat jartzeko lortuko duten itxaropenarekin daudenak.

Irailarekin batera hasi da lehenengo hiruhilekoa. Hezkuntza, batez ere, hezitzaileen zeregina bihurtzen den garaia. Ea ikasturte honetan hezitzaileok lortzen dugun, irakasteaz gain, gure ikasleei ikasten laguntzea. Izan ere, mundua gure liburuetatik irakats dezakeguna baino luzeagoa eta zabalagoa da. Animo neska-mutilak, eskolako leihoa zabaldu eta gurekin batera mundua zein aberatsa, erakargarria eta bizia den ikusteko irrikatan ditugu-eta! •



Iraillean hezkuntza, batez ere, hezitzaileen zeregina bihurtzen da.

THINKSTOCK

{ koaderno } Iker Barandiaran

Lehen aldia

Egin nuen lehen aldia musika talde baten entsegu lokalean izan zen. Zer egin nuen? Nola izan zen? Mitifikatuta dugu lehen aldi hori, nahiz eta lehena izateagatik eta hain mitifikatuta izateagatik ez den gehienetan aukeratan onena izaten, horiek baino hobeak egoten dira askotan.

Leku berri batera joan izandako lehen aldia, norbaitekin topo egindako lehen aldia, zerbait esperimentatutako lehengoa, droga bat hartutako estreinakoa... Zer-nolako garrantzia ematen diogun horri eta zein hutsala izan ohi den askotan emaitza, hainbeste espero izanagatik eta ez dakit-zer-nolako-espektatibak aurrean jarri izanagatik askoz gehiago espero dugulako. Aurreiritziek baldintzatzen dute momentuko sentsazioa, aurretik jada horrekiko espero duguna... horrek zapuzten du askotan ezustekoa eta sinesgaitza izan daitekeena, bere benetako xarma.

Eta seguruenik *ñoña* edo *moña* irudituko zaizuen arren, lehen aldiari benetako zukua ateratzen dakiten bakarrenetarikoak umeak dira; bai, oraindik txikiak izateagatik harritzeko eta harrituak izateko gaitasuna dutenak. Gurasook, lanak uzten digun heinean, seme-alabekin egiten dugu egunaren zati handi bat, eta aste osoan haiek(in) disfrutatzen, ikasten, tiraflorjan, negoziatzen, zaintzen, gidatzen eta errietan pasatzen dugu denbora asko.

Eta zer esanik ez udan, jakina: orduan 24 orduak ditugu beraientzat, eta aberasgarria eta batzuetan nekagarria bada ere, guk ekarri ditugu mundura eta gurea da beraiek lagundu eta gidatzeko ardura, baita agoantatzekoa ere. Horrek ez dauka bueltarik.

Gainera, bide batez, uda une batean gelditu eta balorazioak egiteko garai gisa balia dezakegunez, egiaztatu ahal izan dut umeak haztearen gauza onenetarikoa dela haien deskubrimenduen lekuko zuzena izatea, oraindik kutsatu gabeko begi, belarri eta burmuin horiek nola jasotzen eta interpretatzen dituzten estimulu horiek guztiak diren bezala, bestelako gogoetarik gabe. Hasi txikienarekin batera bainatzearen esperientziaz, eta jarraitu 3 urtekoaren burutazio eta galdetegi irudimentsu agortezinekin. Edonor harritu eta liluratzeko modukoak, apenas etxetik irten gabe gainera.

Norberarenari tiraka, oso gogoan dut gaztetxotan irrati (libre, baina maila berean kikiltzeko gaitasuna duena) baten mikrofonoaren aurrean jarri nintzen lehen aldian mutu geratu nintzela. Gerora, baina –zeinek esango luke– probatu ditudan hedabideetatik berau da gehien erakartzen nauena; badu zerbait mikrofono gabe hitzetan azaldu ezin dena. Urte batzuk geroago, gaztetxo oraindik ere, bi lagunek Andaluziara jo genuen, San Joserantz, Strummer bera ere liluratu zuen lurralde hippyrentz. Baina bidean Granadako Sacromonten gazpatxoa lehen aldiz dasatzeko geldiuena egin genuen, eta baita desilusio galanta jaso ere: laguna eta biok eltzeko jana zelakoan geunden-eta. Hara, baina, denbora gutxira lagun honek etxean gazpatxoa prestatzeari ekin zion eta erabateko zale amorratua da oraindik ere. Eta, bide batez, bidaia horretan ikasi genuen, baita ere, porru-erretzaile fededunak ere badire-

Lehenengo jasotzen duguna ez da beti balio duena; lehengoa ez da erabakigarria. Inguratzen gaituenari nola begiratzen diogun da gakoa. Eta hori eremu guztietara bidera dezakegu

la, eta Ama Birjina delakoen debotoak diren haxix saltzaileak! San Joseren eragina ote?

Lehenengo jasotzen duguna ez da beti balio duena; lehengoa ez da erabakigarria. Inguratzen gaituenari nola begiratzen diogun da gakoa. Eta hori eremu guztietara bidera dezakegu: zein begirekin erreparatzen diogun ondo-koari, gertatzen ari denari edo pasatakoari. Horregatik miresten ditut umeak eta duten jarrera.

Entsegu lokal horretako lehen aldia etorri zait berriro gogora. Baina, zehatz, zertaz ari naiz? Larrutan lehen aldiz egin izanaz? Baliteke, baina izan daiteke baita ere lehen aldiz gitarra bat esku artean hartu izanaz, anplifikadore bat belarri ondoan izanaz edo Karlos *Mahoma* lehen aldiz abesten entzun eta ikusi izanaz. Auskalo! Eta gauzak norberari datorkion bezala bizitzen, sentitzen eta gozatzen ikasiko bagenu, are eta gehiago harrituko zintuzket. •

«Gizartea parekidea ez den artean, Internet bera ere ez da izango»

Internet eta oro har teknologia berriekiko lilura agertzen du Iker Merchanek. Bere lan ibilbidea haien bueltan eraiki du eta ohiko komunikabideetan tarterik ez duten pertsonen bestelako aukerak eskaintzen dizkietela sinisten du. “La brecha digital de género. Análisis de las causas de la menor influencia de las mujeres en internet” izenburupean aurkeztu duen tesian emakumeek sarean duten lekua eta eragina aztertzen du. Erabileran aurrera eginagatik, eraginean ez dela aurrerapen handirik ondorioztatu du. Internet «tresna parekidea» dela dio, baina gizarteak ematen dion erabilera ez. «Gizartea parekidea ez den artean, Internet bera ere ez da izango», nabaremtzen du.

Teknologia berriei lotuta egin duzu zure ibilbidea. Baina zerk eraman zintuen haietan emakumeen duten eragina neurtzera?

Ni betidanik egon naiz maite-minduta teknologia berriekin. 1995ean hasi nintzen Interneten nabigatzen eta lan ibilbidea teknologia berrietara bideratu nuen. Abantaila handiak eskaini dituzte eta haietako bat, nire ustez, gutxitutako kolektiboei ematen dizkieten aukerak dira. Kontua da ni gizona naizela, heterosexuala, zuria, hipoteka ordaintzeko arazorik ez duena... Jaiotzez, eta ez horretarako egin dudana esfortzuagatik, ez naiz beraz gutxitutako kolektibo bateko kidea. Argi neukan, ordea, teknologia berriek eskaintzen duten boteretzeko ahalmena aztertzen nahi nuela eta gutxitutako kolektiboen artean ugariena delako emakumeak aztertzea erabaki nuen.

Boteretzeko duten ahalmena abiapuntu gisa hartu zenuen.

Lana hasi nuenean hipotesi nagusi bat nuen: teknologia be-

rriek, zalantzarik gabe, emakumeak boteretzeko ohiko komunikabideek baino erraztasun gehiago eskaintzen dituzte. Nire sorpresa izan da frogatzea Interneten bestelako komunikabideetan bezain gaizki edo okerrago daudela emakumeak.

Agian Interneten abantailen inguruko itxaropen handiegia zeuden?

Agian bai. Hasieran itxaropen handiak zeuden jarrita Internetek dituen ezaugarri teknikoengatik. Azken batean, sareari esker gaur egun guztiok dugu poltsikoan inprenta bat eramateko aukera. 80ko hamarkadan “The New Yorker” agerkarian argitaratu zuten esaldi batek zioen AEBetan izan bazela inprenta askatasuna, baina bat zuenarentzat bakarrik; hori hala da, izan ere, ohiko komunikabideetarako sarbidea mugatuta dago. Zuk ez baduzu milaka ale inprimatzeko eta banatzeko baliabiderik, aukera izan baduzu kalera irten eta oihu egiteko, baina hori al da inprenta askatasuna?

Teknologia berriekin egoera desberdina da. Nire Twitterra “New York Times” egunkariaren Twitteraren parekoa bada, horrek nolabait parekatu egiten gaitu. Ikuspuntu teknologikotik, beraz, boteretzeko tresna bat dugu. Azken batean egun hitz egiten ez duenak nahi ez duela da, plaza izan bada-eta.

Plaza ez dela nahikoa frogatu duzu baina.

Ohiko komunikabideetan emakumeak kazetarien erdia zarete, baina ez zarete botere postuen erdia betetzera iristen. Komunikabideetan bi botere postu mota bereizten dira: ohikoak, zuzendaritzari lotuak; eta iritzi boterea dakartenak; emakumeek iritzi emateko duten aukerari lotuak. Interneten, hasiera batean behintzat, ez dago inolako eragozpenik inork bere iritzia eman dezan, baina, hala ere, eragin handiena duten blogen artean emakumezkoen presentzia %17koa da. Beraz, hasiera batean boteretzeko ahalmena duen tresna batek ez du pentsatutako eragina lortu.

IKER
MERCHAN

KOMUNIKAZIO DIGITALEAN
AHOLKULARIA

Komunikazio digitalean aditua,
emakumeek Interneteko blogetan duten
eragina aztertzeke eta zergatietan
sakontzeke tesia aurkeztu du

Maiden Eizmendi

Emakumeen kasuan, erabilera soilik handitu al da?

Kontua da heziketa dela medio, teknologiak gehiago erakartzen gaituela gizonak emakumeak baino. 1997an Interneten nabigatzen zuten lau lagunetik hiru gizonak ziren. Orduan pentsatu zen parekidetasuna lortzeko emakumeek gehiago nabigatzea zela soluzioa. Denborak frogatu du kopuruan behintzat berdintasuna lortu dela, baina horrek ez duela boteregunerik lortu Interneten. Erabiltzaileen erdia izatea ez da eraginaren erdia emakumeena izatearen sinonimo.

Nola aztertu duzu emakumeen eragina?


Konplexua den kontzeptua da. Nire helburua eraginaren definizioan ez katramilatzea izan da. Eraginaren inguruan egiten diren zerrenda hainbatek erabiltzen dituzten irizpideak hartu ditut oinarri eta handik aurrera lan egiten saiatu naiz. Haute-mandako eragina eta eragin erreala aztertu ditut. Lehenak, jendearen ustea neurtzen du, hau da, «zein da zure ustez Interneten eragin handiena duen bloga?» galderaren erantzunak osatzen du emaitza. Eragin erreala ezagutzeko blogak dituen loturak hartzen dira kontuan; orduan eta lotura gehiago, eragin handiagoa.

Zeintzuk dira, zure ustez, kopuru eta zenbaki horien atzean gordetzen diren arrazoiak?

Zergatiak zehazteko orduan gaian aditu diren pertsonen iritzian oinarritu naiz, gisa hone-tako lanak ezin baitira norberaren uste edo iritzietan oinarritu. Interneten eragin handia duten hamar emakumeren eta gaian aditu diren lau lagunen iritzia jaso ditut. Haietatik ondorioztatu dut Interneten gizonak eta emakumeak duten eragin desberdinaren arrazoietakoa bat batzuek eta besteek duten denbora dela. Emakumeek, oro har, aisialdirako gizonak baino denbora gutxiago izaten dute, zer esanik ez seme-alabak badituzte. Bikote batean emakumeak hartzen badu haurren zaintzaren

«Bikote batean emakumeak hartzen badu haurren zaintzaren pisurik handiena, bere bikotekideari baino zailagoa izango zaio Interneten eragina izatea lortzea»

«Nik Interneten hanka sartzen badut, egin dudana horregatik kritikatuko naute. Aldiz, hanka sartu duena emakumea bada, kasu batzuetan, egin duenagatik ez, beste arrazoi batzuegatik jasotzen ditu kritikak»



pisurik handiena, bere bikoteki-deari baino zailagoa izango zaio Interneten eragina izatea lortzea. Beste arrazoi bat Interneten zabaltzen denaren ondorioak dira. Nik Interneten hanka sartzen badut, egin dudan horregatik kritikatuko naute. Aldiz, hanka sartu duena emakumea bada, kasu batzuetan egin duenagatik ez, beste arrazoi batzuegatik jasotzen ditu kritikak. Emakumeek, oro har, zigor bikoitza dutela hautematen dute. Jazarpen kasuak ere deskribatu dituzte.

Zein motatakoak?


Elkarrizketatutako emakume batek kontatu du, esaterako, egoera gogorrak jasan behar izan dituela. Deigarria da, hala ere, kasu askotan ez dituztela identifikatzen. Galdetzen hastean Interneten berdintasuna zegoela esanez hasten ziren, nahiz eta gero parekidetasun egoera batean batere normalak ez diren egoerak deskribatu. Kasu zehatzak ez dituzte testuinguru orokorrago baten baitan kokatzen. Hori da, hain justu, arazo honen aurpegirik itsusiena, ikusgarritasun eza.

Ikusgarritasuna aipatuta, Interneteko blogetan idazten duten emakumeak ere ez dira lehen lerroan agertzen, ezta?

Ikusgarritasunaren kontzeptua erlatiboa da. Zuk Interneten dena publiku dezakezu, baina, leku zehatzetan agertzen ez bazara, edo, hainbat lagunek ez bazaituzte aipatzen, oso zaila da ikus zaitzaten lortzea.

Jorratzen diren gaietan ere desberdintasun handiak daude?

Oinarrizkoa da interes orokorreko blogak gainerakoetatik bereiztea. Interes orokorra ez da nire ikuspegi subjektibotik interesgarri jotzen dudana, gure bizitzan eragina duten gaiak baizik. Athleticek egiten duenak taldeko zaleei edota futbolzaleei eragiten digu; aldiz, osasun arloan BEZari lotuta hartzen diren erabakiak guztiei interesatzen zaizkigu. Interes orokorreko gaietan gizonen presentzia askoz handiagoa da. Emakumeak



nabarmen nagusi dira “femeni-notzat” jotzen diren gaien lotutako blogetan: haurren ingurukoak, edertasunari lotutakoak... Ez dakit interesa den edota, lehen aipatutako arrazoiak medio, gai potoloetan sartzeko beldurrak eragiten duen gehiago. Azken batean, gai “femeninoak” lantzen badituzte, esperotako rola ari dira betetzen emakumeak.

Internetez zenuen ikuspegia zeharo aldatu al zaizu?

Tresna bera parekidea da. Aurretik komunikatzeko behar izan ditugun baliabideekin (inprenta, telebista katea...) alderatuta parekideagoa da. Beste kontu bat da gizarteak tresna horri ematen dion erabilera ez dela parekidea. Interneten ezaugarriak lagungarriak dira, baina, aldi berean, infinitua da eta horrek zailtasunak dakartza. Egunkariak har ditzakete neurriak emakumeen ikusgarritasuna ahalik eta handiena izateko, egun batetik bestera gainera. Internet denbora eta espazio aldetik mugarik ez duen komunikabidea da: pertsonok sortu nahi

«Emakume asko Interneten egiten ari diren lan ikaragarriaz jabetu behar dugu, ikustarazi egin behar ditugu. Argi utzi behar dugu zeintzuk diren eta ondo egiten ari direnak ezagutarazi egin behar ditugu»

ditugun adina mikro eta makro-komunikabide egon daitezke nahi beste gairen inguruan. Arazoa da: nola lortzen dugu berdintasuna infinitua den espazio batean? Arazoa ez dago inondik inora komunikabidean. Ez dugu esaterik gizarte parekide batean zapaltzailea den komunikabide baten aurrean gaudenik; Internet ispilu ezin hobea da gizarteak bere burua begira dezan. Gizartea parekidea ez den artean, Internet bera ere ez da izango.

Lan handia dago egiteko?

Bai, baina zorionez gero eta gehiago gara diskriminazioa agerian jartzeko saiakerak egiten ari garenak. Nire ustez, horrek ez du esan nahi, batzuek sinestarazi nahi diguten moduan, okerrago gaudenik. Hobeto gaudenik; hori bai, gero eta kontzientziago gara. Uste dut eskubide zibilen leherketa partikularra ari garela bizitzen. Kontzientzia hartzen ari gara eta soilik ikusten diren arazoei eman ahal zaie soluzioa. Maila pertsonalean ikerketa oso aberasgarria izan da, erantzun aberatsa aurkitu

dut eta. Interneten dena ona dela esatea eta natibo digitalek askoz ere errazagoa dutela esatea okerra da. Egoeraz kontzientzia hartzeko balio izan dit, nire aurrean nuen eta orain artean ikusi ez dudan mundu bat ikusteko aukera eman didalako.

Egoera ikusarazteaz harago soluzioak ere planteatu dituzu, ezta?

Emakume asko Interneten egiten ari diren lan ikaragarriaz jabetu behar dugu, ikustarazi egin behar ditugu. Argi utzi behar dugu zeintzuk diren eta ondo egiten ari direnak ezagutarazi egin behar ditugu. Horretarako zerrendak egin daitezke. Azken batean, emakume horiek eredu izango dira gai desberdinen inguruan eta gaion gaineko iritzia emateko ausartagoak izan daitezke. Komunikatzera animatu behar ditugu emakumeak, interes orokorreko gaiak jorratzera. Horrek ez du esan nahi femeni-notzat jotzen diren gaien inguruko blogak baztertzea, baina bai bestelakoak indar handiagoarekin bultzatzea.

Kattagorriak

Mirari Martiarena

Kattagorri izateko gonbidapena jaso nuen espetxetik igorri zidaten gutun batean. Elkarrekin egoteko modu bakarra hori zelako eta delako zoritxarrez. Kattagorri bihurtzen naiz bizitzako momentu esanguratsuenetan, baita eguneroko momentu xumeenetan ere. Beti izaten dut gogoan bera eta gure kattagorri izaera. Poz handienetan elkartzen garenean saltoka ibiltzen gara, adarretik adarrera dagoen distantzia zein den konturatu gabe. Zentimetroak, metroak edo kilometroak diren ez du inportatzen. Ez dago mugarik. Mina dugunean, berriaz, elkar besarkatuta egoten gara, elkarri babesa eta goxotasuna emanaz. Negar egin behar badugu negar eginez eta irri

egin behar badugu irri eginez. Hustutako ezkur azalak aprobetxatzen ditugu garagardoz bete eta topa egiteko. Hilabete honetan, adibidez, festa eguna dugu irailaren 16an, bere urtebetetzea ospatuko dugulako. Gutun bateko gonbidapen horretatik hasi zen guztia. Berri Txarrak taldearen “Iraila” abestiak dioen bezala «hitzak urtarotatik batetik bestera bidaltzen genituen», eta oraindik ere horretan dihardugu. Gutun bakoitzean sortzen ditugu besarkada eta muxu berriak. Izan daitezke lore sortetan bildutakoak udaberrian, ihintz usaineko besarkada freskoak udan, ilunabar arroketako muxu beroak udazkenean edo Aiako Harrietako elur bota berriaren za-

porekoak neguan. Urtaroka bada ere, elkar hitz berritzen eta bizi berritzen dugu. Irudimena eta maitasuna lotuz gero inoiz pentsatu gabeak lortu eta egin daitezke. Iristeko hilabete pasatzen dute hitzek gutxi gorabehera. Baina berdin du, sentimenduak ez baitira hiltzen tarte horretan. Kattagorri bat ikusten dudanean badakit hitzak iritsi direla edo badatozela. Gauza asko bururatzen zaizkit baina nire eguneroko burutapenak izaten dira. Benetan sentitzen direnak. Eta benetan sentitzen direlako jarraituko dut horrelakoak pentsatzen eta igortzen. Kattagorri izateari uzten ez diodan bitartean jarraituko dut ezkur azalekin egindako kopetan topa egin eta “Zorionak zuri” kantatzen. •

Beldurra

Koldo Sagasti

Beldurra izango zen, seguruenik, 4.000 haurren gurasoak euren kumeak “Habana” itsasontzian bidaltzera bultzatu zituen. 1937. urtea zen eta, gerraren ikaraz, milaka euskaldunek umeak Santurtzitik Britania Handira ontziratzeko erabaki latza hartu behar izan zuten, bertan aterpea bilatuko zutelakoan. Eta Gobernuarena ez, baina gizarte britainiarraren babesa bai, jaso zuten. 1948an gudaroste sionistek Deir Yasin herrian egindako sarraski ankerra akuilu izan zen ia milioi bat palestinarrek erbes-tera alde egiteko, beldurraren beldurrez. Miseria, gosetea eta gerratearen beldurrez saiatzen dira milaka lagun Melillako

hesi zorrotzak zeharkatzen. Eta Mendebaldeko estatuen esku-hartzeak Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako zenbait herrialdetan eragindako gerra egoeraren beldurrez egiten dute ihes milaka eta milaka lagunek lasterketa etsi eta zoro batean. Bestalde, Mendebaldeko agintariak eta hedabide hegemonikoek ere errefuxiatuen aurkako beldurra elikatzen dute. Lana lapurtzera eta gure gizarte zerbitzuen kontura bizitzera datozela diote, asmo txarrez, gure gizarte eredia kolokan jartzera nonbait. Eta beldurraren diskurtsoak etekinak eman ditu. Ikusi besterik ez dago Javier Maroto edo Xavier Garcia Albiol bezalako pertsonaiek arrazakeriaren mamua

astinduz euren ibilbide profesionaletan izandako gorakada. Beldurra oparitzen digute, eskubide zibil eta politikoetan ezarriko dizkiguten murrizketak errazago irents ditzagun. Baina beldurraren estrategia porrotera kondenatuta dago, izan ere, ezin dira alderatu pribilegioak arriskuan ikusten dituztenen beldurra eta heriotzatik ihesian datozene-na. Bizirauteko grina beti gailenduko zaio pribilegiatuen ezinegonari. Horregatik, alferrik ari dira landari hesiak jartzen. Izan gaitetzen zentzudun. Garai batean “Habana” ontziko hurrek jaso zuten abegikortasuna ematea guri dagokigu orain. Izan gaitezen haientzako aterpe. •



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

«Emakumeei ez
zaie baserriko lana
aitortu; zaintza eta
etxeko lanetara
kondenatuak izan
dira»

rrian ezartzeko eredutzat hartu nuen, eta, masterraren eskaintza ikusita, animatu egin nintzen ikastera.

Ikastaroan landu dituzuen gai guztietatik, baten batek erakarrri al zaitu bereziki?

Ez da erraza alderdiei lehentasunak ematea. Agroekologiak dena barnebiltzen du; ikuspegi ekonomikoa, gizartea, ingurumena, lurralde antolamendua, uraren kudeaketa... Nekazaritzak inguruan daukan eraginaz hitz egiten du. Alderdi bati lehentasuna eman beharko banoike, ekonomia feministari izango litzateke. Horrek interdependentziaren terminoa lantzen du, hau da, pertsona guzti-guztiok behar dugula norbait. Gizarte solidario baten aldeko planteamendua egiten du ekonomia feministak, elkarkidetzaz bizitzaren oinarri gisa jarritz.

Zer moduz ikusten duzu euskal gizartea agroekologiarantz abiatzeko?

Inoizko kontzientziarik handiena ikusten dut gizartean. Gero eta gazte gehiagok bertoko produktuen alde egiten dutela iruditzen zait, bai kontsumitzerako orduan, baita ekoizterakoan ere. Kontsumitzaileen artean hazten ari den kontzientzia bat sumatzen dut, bertoko produktuak merezi eta balio duena ordaintzeko prest dago gero eta jende gehiago. Elikadura osasuntsuaren aldeko uholdea ere handituz doa, eta hori bertoko ekoizpena indartzearekin estuki lotuta dago. Baina, zoritxarrez, instituzioek egiten dutena baina gehiago egin beharko lukete. Baserritarrek ingurua zaintzen dute; paisaiaren lorazainak dira, espezie autoktonoetako basoak zaintzen dituzte, orain dela 150 urteko haziak mantentzen dituzte... Eta hala ere, nekazaritza bigarren mailako sektore ekonomikotzat hartua da. Instituzioek saritu be-

Onintza Enbeita Maguregi (Muxika, 1979) bertsolari, kazetari eta politikari izateaz gain nekazaria ere bada, «nahiz eta umetan inoiz tokatu zitzaidan gogoz kontra belarra kendu edo fardoak egitea!». Egun, Ormaetxe baserriko alabak, gurasoekin batera, ekoizpen familiarra aurrera ateratzen du. Txerriak eta okela behiak hazten dituzte, baita barazkiak ekoitzi ere; «batez ere udan, piperrak, indabak eta tomateak», argitzen du Onintzak berak. Etxean duten ekoizpen ereduak deskribatzeko eskatuta, «ekoizpen ekologikotik gertu dagoen ekoizpen kontzientziala» dela dio. «Agroekologiarantz bidea lantzen ari gara», gehitzen du.

«Geldirik egon ezin den pertsona» moduan definitzen du bere burua. EHUko Agroekologia masterra egiten ari da egun, eta nekazaritza ekologikoaren alde egin beharreko apustua argi dauka. Lehen sektoreak bizi duen problematika ondo ezagutzen du, ekoizle, saltzaile eta politikari gisa. Bertso saio batean kantatu aurretik, tartetxo batez solas egin ahal izan dugu Onintza polifazetikoarekin.

Kazetaria, bertsolaria, politikaria, nekazaria... nola definituko zenuke zure burua?

Gauza batekin lasai egon ezin den norbait moduan definituko nuke, batetik bestera saltoka dabilena. Nagusiki kazetari eta bertsolari gisa ikusten naiz, gainerako ofizioak bizitzako kuriositatearen ondorio zuzenak dira.

Bertsoak eta nekazaritzak landa eremua dute jatorri, eta azkenengo urteetan hirira egin dute salto. Nola garatu dira?

Asko garatu dira, baina erritmo oso ezberdinetan. Biak landa eremua dute jatorri, eta hiritar-terakoan ez dute toki bera aur-

kitu. Bertsoaren kasuan, honen sustraiei eutsiz hiritik zabaltzen asmatu dugu. Nekazaritzaren kasuan, berriz, saltoa txikiagoa izan da. Txikitasun konplexua izan dugu gai baserritarrok hamarkadetan, eta nekazaritza soilik proiektu handiek salbatuko duten ustea. Egun, hori aldatu egin da, beste kontzientzia bat sortu da eta proiektu itxaropentsuak martxan daude, nekazaritza familiarren eta praktika agroekologikoen aldeko apustu argiarekin.

Politikaria zaren heinean, nolakoak dira Espainiako Kongresuan nekazaritzaren inguruko politikak? Alderdien artean adostasunik ba al dago politika komunak martxan jartzeko?

Nekazaritzaren politikak oso eskasak dira eta bigarren mailako lehentasuna daukate. Politika horiek, nagusiki, nekazaritza merkantilista eta produktibista eredu konkretu batera bideratuta daude. Guk, nekazaritza familiarra, ekoizpen estentsiboak eta elikadura burujabetza bultzatzea dugu helburu. Zoritxarrez, nekazaritza eredu alternatibo baten alde egiten dugunon artean ere ez dago planteamendu komunik. Bakoitzak bere bidea egiten du.

«Agroekologia: Trantsiziorako gure bideak lantzen» masterra ikasten duzu EHU, aurretik bere lehen promozioa duena. Zergatik animatu zara masterra egitera?

Baserrian jaiotakoa naiz. Aitite eta amama baserriaz bizi ziren, aita eta amak ezin izan zuten baserriaz bizi eta nik baserriari heldu behar niola ikusi nuen. Baserria unitate produktiboa da, eta hori berreskuratzeko beharra ikusi dut. Duela pare bat urte, topaketa batzuen harira, Kolonbiara egin nuen bidai. Han agroekologia gertutik ezagutze-ko aukera izan nuen. Gure base-

ONINTZA
ENBEITA
MAGUREGI

Kazetaria, bertsolaria, politikaria edo nekazaria den galdetuta, «geldirik egon ezin duen pertsona» bezala definitzen du bere burua Onintza Enbeitak

ENEK



Argazkia: BERTSOZALE ELKARTEA

har dituzte baserritarrek jendarte guztiaren alde egiten dituzten lan horiek guztiak.

Emakumea eta baserria, nola definituko zenuke harremana?

Emakumeei ez zaie baserriko lana aitortu. Baserria kartzela izan da emakumeentzat, zaintza lanetara eta oro har etxeko lanetara kondenatuak izan baitira. Emakumeek jakinduria asko garatu dituzte lurrarekin lotuta, eta, adibidez, sendabelarrak sor-

tu edota haziak nola gorde, noiz erein, nola ekoitzi eta abar erakutsi digute. Emakumeak izan dira transmisioa egin dutenak. Egindako lana eginda ere, beti bigarren plano batean utziak izan dira. Hori gutxi balitz, kasu askotan erretiroa hartzeko eskubiderik ere ez dute izan, eta ustiategiak gizonen izenean egon dira. Egun gauzak pixkanaka berdintasunera hurbiltzen daude. Adibidez, gero eta emakume gehiago ikus ditzakegu ustiape-

nen buru. Hala eta guztiz ere, lan handia dago egiteke.

Gernikako plazan saltzaile ere bazara. Nola ikusten dituzu Euskal Herriko azokak, eta, konkretuki, Gernikakoa?

Gernikako plaza ondo ezagutzen dut, baina gainerakoen errealitatea ez dut ezagutzen. Esango nuke Gernikako azokak inertzia funtzionatzen duela, eta azkenengo urteetan ahul ikusten dut. Astelehen goizetan izateak garai

baten balio zuen, baina egun langileen artean nork du libre astelehen goiza? Instituzioen aldetik azoka berpizteko ez dago esfortzu handirik. Madrilgo merkatuetan erakusketa gastronomikoak egiten hasi dira adibidez, eta horrelako inizatibaren bat gurera ekartzea polita izango litzateke. Ikusten dudana beste arazo bat prezioena da, ekoizlearen artean ez dago adostasunik eta bakoitzak bere kasa jartzen ditu.

Eta Gernikako azokarekin jarraituz, ekoizleen eta birsaltzaileen lekua zein da?

Batzuek eta besteek eskubide berberekin parte hartzen dugu azokan, ekoizleentzat ez dugu eremu bereziturik. Bezeroak azokara joatean ez du argi nor den bertako ekoizlea eta nork erosi dituen barazkiak Mercabilbaon, ondoren saltzeko. Hori ez da bidezkoa. Ekoizleak protagonista izan beharko ginateke.

Azokak berpizteko ideiarik?

Ekoizleei merkaturatzea erraztu behar zaie. Horretarako, besteak beste, produkzio industrial eta etxekoa bereizteko politikak gauzatu behar dira, birsaltzaileen auzitik hasita. Etiketak eskaini eta postuak desberdindu behar dira, kontsumitzaileari argi uzteko nori erosten dion eta zer erosten duen. Bertan kozinatzea, Madrilgo merkatuetan egiten duten moduan, aukera ona da. Erakusketa gastronomiko horietan kalitatezko produktuak aurkeztu eta prestatzen dira. Gauza gozoak probatzeko ez ezik, kozinatzen ikasteko ere balio dute.

Ezingo dugu aukera pasatzen laga... Nahi duzun neurri eta doinuak, bota bertso bat Ekolurarentzat, mesedez.

Bizi dugun garaira/luzatuta bista/Ezin omen da izan/oso optimista/Baina bada zer egin/nekea utzita/badago zer irauli/aitzurka, harrika/mundua aldatzeko/lurretik hasita.



Bidean aurkitu dituen oztopoak gainditu ditu Arraizak. Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

infraganti EUNATE ARRAIZA

«Guztia da posible». Ez da iragarki baten lema, ez. Zailtasunez gaindi, gorengo mailan jokatzeko duen futbolari baten hitzak dira. Eunate Arraizak entzumen arazoak ditu, baina traba hori ez da nahikoa izan bere ametsa betetzeko. San Mames zaharrean eta Anoetan jokatu du, eta Athleticekin Liga eta Kopa irabazteko zorian egon da.

Futbolak topiko asko gordetzen dituela jakina da. Azaletik aztertuz gero, jakina. Sakondu nahi izanez gero, ordea, istorio edo historia politak bila ditzakegu. Horren erakusle da, hain zuzen, Eunate Arraiza. Lehen Mailan jokatzeko du, egun Athleticen

elastikoa defendatuz. Bada, gorengo mailan jokatzeko duen jokalaria gor bakarra da bera. Txikitik –ez dakite jaiotzez edo txerto baten ondorioz– entzumen arazoak hauteman zizkion biurrundarrari. Hau da, guztiz gorra dela konturatu ziren. «Implante koklearra egin zidaten eta audiofono bati esker egoki

moldatzen naiz. Horiek gabe ez dut ezer entzuten», azaldu du.

Implantei esker egunerokotasuna eramangarriagoa dela aitortu du: «Behintzat horrela mundua entzun dezaket». Argi eta garbi mintzo da, modu zuzenean, inolako lotsarik edo konplexurik gabe. Eta harro dago lortutakoaz. Kontziente da zaila izan dela, baina oraindik ez da nekatu, borrokatzeko asko gelditzen zaio. «Gorengo mailan jokatzeko ari naiz, eta gorra izatean badakit meritu handiko lorpena dela. Egunez egunera borrokatzen dut futboleko jokatzeko eta entzuteko», azpimarratu du. Izan ere, audiofonoek zein inplante koklearrak ez dituzte arazo guztiak konpontzen. Bizkarrez hitz egiten badiote ez du ondo entzuten, «edo atezainak zerbait esan eta goian nagoenean», jakinarazi du. Oztopoak dira, «baina zure aldetik posible den guztia eginez gero, gainditzeko».

Ez dira hitz hutsalak, eragozpenak gainditu dituen batek esanak baitira. Eskarmentu handiko jokalaria da Eunate Arraiza, eta, horregatik, agian, dago hain ziur guztia dela posible: «Bizitza honetan ezinezkorik ez dagoela argi eta garbi daukat». Gortasunetik harago, emakumea eta goi-mailako futbolaria izatea ere ez da batere samurra. «Futbolaria izaten saiatzen naiz», dio irribarretsu eta umiltasunez, kirol honekiko grina txikitatik izan duela gaineratuz.

Kemen horrek, hain zuzen, Lagunak talde nafarrarekin Lehen Mailan debutatzera eramanez, 14 urte besterik ez zituela (2006ko martxoaren 5ean). Azken urteetan gorengo mailan izan den debut goiztiarrena izan zen. «Oso oroitzapen onak ditut; Oviedo Modernoren aurka 2-0 irabazi genuen. Umea nintzen eta izugarritzko aldaketa suposatzen zuen, entrenamendu batzuk eginak bainituen lehen taldearekin baina berez Lurralde Mailan jokatzeko bainuen, bi maila beherago», jakinarazi du.

LIGA IRABAZTEKO AMETSA

Bederatzi urte eta bost hilabete igaro dira Eunate Arraizak Le-

hen Mailan aurreneko balaia ukitu zuenetik. Egun, 24 urte ditu eta Athleticen bere laugarren denboraldia jokatu du. «Ez nuen espero Athleticen jokatzeko, klub handia izaki», onartu du biurrundarrak. Lagunak talde barañaindarrean aritu zen 8 urte zituenetik, 20 urterekin taldeko giltzarri izatera iritsi arte. Ez zuen pasatzen utzi klub zuri-gorriaren trenea. Gainera, orduan Lagunak taldeak asko sufritu behar izaten zuen maila mantentzeko: «Urtetik urtera gero eta jokalaria gehiagok uzten zuten, arrazoi ezberdinak tarteko, eta taldearen mailak beherakada handia jasan zuen. Urtero azken jardunaldira arte, azken minutura arte, borrokatu behar izaten genuen Lehen Mailan jarraitzeko», dio Biurruneakoak.

Orain, ordea, garaikurrengatik borrokan ari da Arraiza, Athleticeko kideekin batera. Azken lau urteetan oso gertu eduki dute bai Liga eta bai Kopa zuri-gorriek, baina azken unean eskueetatik ihes egin die tituluak. 2013an, adibidez: «Ondo gogoratzen dut Bartzelonaren aurka azken jardunaldian San Mamesen jokaturiko neurketa. Guk abantaila txiki bat geneukan, berdinketa nahikoa baitzitzailgun Liga irabazteko, baina, azkenean, huts». Ez daki zer pasatu zitzaizen. Beharbada ikusle askoren aurrean jokatzeko urduritasuna areagotu izana gako izan zen, baina ez dio inolaz ere Bartzelonari meriturik kendu nahi. Erreginaren Kopa irabaztetik ere hurbil izan ziren 2014an, baina Bartzelonaren aurka penalti jaurtiketetan galdu zuten.

Hori bai, Arraizaren benetako ametsa Ligako garaikurra altxatzeko da. «Niretzat pertsonalki Liga garrantzitsuagoa da: urte guztian horretarako entrenatzen dugu eta txapelketa talde erregularrenak eskuratzen du», aitortu du. Azken urteetan gertu eduki duten titulua izanik, gogotsu dago ametsa errealtate bilakatzeko. «Bai, bai, aurtengo Liga irabazteko prestu gaude», dio nafarrak, zalantzak uxatzeko. Izan ere, aurtengo Athleticeko aldaketa asko jasan ditu –entrenatzaile berria tarteko– eta gaz-



Eunate Arraiza itxaropentsu mintzo da hastear den denboraldiaren inguruan. Liga irabazteko borrokan aritzea dute xede zuri-gorriek. Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

teenek protagonismo gehiago izatea espero da. Arraizak konfiantza itsua dauka bere taldean, «eta ea, behingoz, lesioek errespetatzen gaituzten», dio amorraturik, iazko emaitza txarrak gogora ekarriz.

Taldez aldatzeak ez zuen elastikoaren aldaketa bakarrik ekarri. Lagunaken ohituta zegoen goleatzaile izatera, ezker hegalean edo aurrelari gisa aritzen baitzen; Athleticen, aldiz, batez ere iazko sasoiaren, postua atzeratu zioten. Baina, era berean, norgehiagoka guztietan –bakar batean izan ezik– hasierako haia maikakoan izan zen Arraiza: «Pertsonalki nire denboraldi onena izango zen ziurrenik, baina ez da muga, gehiago eman baitezaket».

Golak ez zituen egin, baina asistentziak ematen trebe aritzen, area barnean Nekane Diez edo Erika Vazquez bezalako aurrelari trebeak izatea lagun. Jakitun da bide horretatik ere taldea

laguntzen duela, «eta gustatzen zait. Jokatzeko dudak bitartean, eta taldea laguntzen dudak heinean, seinale ona izango da».

NAFARROAKO EGOERA AHULA

Hobetze aldera, Nafarroan emakumezkoen futbolak bizi duen egoera aldatuko luke biurrundarrak. Berak Lagunak taldea utzi eta segidan, hurrengo denboraldian, Bigarren Mailara jaitsi zen. Osasunak, berriz, diru arazoak tarteko emakumezkoen taldea desagerrarazteko neurriak hartu zituen, Donibane kirol elkarte iruindarrak ere zilarrezko mailari uko egin zion... Hori guztia azken hiru denbo-

«14 urterekin debutatu nuen Lagunak taldearekin Lehen Mailan; Oviedo Modernoren aurka 2-0 irabazi genuen. Umea nintzen eta izugarritzko aldaketa suposatu zuen»

«Inplante koklearra egin zidaten eta audiofono bati esker egoki moldatzen naiz. Hori gabe ez dut ezer entzuten. Behintzat horrela mundua entzun dezaket»

raldien buruan gertatu da. Baina bada argi pixka bat jarri duenik ere: «Mulier FCN orain Bigarren Mailan dago eta nabari da etorkizun hurbilean gorengo mailan egotea dutela xede».

Egoera hobetzeko giltzarria, ezinbestean, klubek zein erakundeek emakumeen futbolan arreta gehiago jartzean dago Arraizaren aburuz. «Eta jokalariek apartak etxean mantentzean», gehitu du irmo. Izan ere, bera bezala, hainbat nafarrek, «arrakastaren» bila Athleticera jo dute, baita Barzelona, Rayo Vallecanora edo Ameriketako Estatu Batuetara ere. Harrobi ikaragarria du Nafa-

rraia. Lagunak bera Erreginaren Kopako txapeldunorde izan zen hiru urtez (1998an, 2000an eta 2006an). Harrobia gehiago zainduz gero orain emakumezkoen nafar futbola bestelako egoera batean litzake Arraizaren ustez.

Gutxika egoera hobera doala eta, horrela jarraituz gero, laster Lehen Mailak talde nafar bat izango duela ziurtatu du. «Ni hori ikustearekin konformatzen naiz», azpimarratu du Biurrunkoak. Hala gertatuz gero ea «etxera» itzuliko litzatekeen galdetuz, ez daki zer erantzun eta, profesionaltasunez, uneotan Athletic besterik ez duela buruan jakinarazi du.

Liga hasiera malkartsua duen sasoi honetan itxaropentsu dago. Garaikurra altxatzeko ametsa bete lezake, baita –zergatik ez?–, etorkizun hurbilean, nafar talde baten igoera ikustekoa ere. «Guztia da posible».

Ane Urkiri Ansola



Txelo Ruiz eta Elena Lazkano
EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlariak

Robotak ardi elektrikoak amesten?

Historia(aurea). Naturako izakiak artifiziarki kopiatzeko duen joera aspaldikoa da, eta ez itxura soilik, mugimenduak eta portaerak ere kopiatu nahi izan ditu, autonomia eta adimena duten izaki artifiziak sortzeko asmoz. Antzinako mitologia batzuetan izaki artifiziak ageri dira, magiaz sortuak. Mitologiatik aparte ere, jadanik zientzialari greziarrek, Kristo aurretik, izakien itxura zuten gailu automatikoak sortzeari ekin zioten, baita txinatar eta arabiarrek ere. Automata haiek, mugitzeko, airea, lurruna edo ura erabiltzen zuten, jariatzen horien presioa izanik mugimenduen eragilea. Dena den, automata haiek oso “artifizialak” suertatzen ziren, begi bistakoa izanik makinak zirela, eta ez izakiak.

XX. mendetik aurrera, eta teknologia-
ren aurrerapenei esker, elektronikaren eta adimen artifiziaren garapenak gero eta automata “naturalagoak” lortzea ekarri zuen, eta ikerkuntza arlo berriak sortu ziren. Horien artean, robotika da gaur egun pil-pilean dagoen arloetako bat, robotak diseinatu eta sortzeaz arduratzen dena. Zientzialari eta ikerlarien artean, robot bat zehatz-mehatz zer den guztiz adostuta ez dagoen arren, robotak identifikatzeko gaitasuna badagoela esan daiteke, nabarduretan sartu gabe.

Zientzia fikzioa. Robotak literaturan aspalditik ageri dira, zientzia fikzioan bereziki. Pentsa, “robot” hitza bera antzerki lan batetik dator: Karel Capek idazle txekiarrak erabili zuen lehen aldiz “R.U.R.” (Rossum's Universal Robots) lanean, 1921ean. Txekieraz, “robot” hitzak lan gogorra edo morrontza esan nahi bide du. Zientzia fikzioaren urrezko aroan, 40ko eta 50eko hamarkadetan, nobela askotan ageri ziren robotak. Pentsa daitekeenez, batzuk onak eta beste batzuk gaiztoak izango ziren. Eta jende arruntak roboten portaera desegokiez ikara izan zezakeenez, Isaac Asimov idazle estatubatuarrak robotikaren hiru arauak idatzi zituen: 1) Robot batek ezin dio minik eman pertsona bati, eta ezin du onartu pertsona batek minik hartzea berak ezer egin gabe hori saihesteko; 2) Robot batek pertsonen emandako aginduak bete behar ditu, ez


bada agindu horiek lehenengo arauaren kontrakoak direla; 3) Robot batek bere burua babestu behar du bizirauteko, ez bada hori egiteko lehenengo eta bigarrenengo arauen gainetik pasa behar duela.

Zineman ere, pelikula askotan ageri dira robotak, askotariko itxurakoak, eta gero eta sofistikatuagoak direnak. Batzuk aipatzeagatik: “Blade Runner” pelikulako erreplikanteak; “Star Wars” sagako C-3PO eta R2-D2; “I, robot” eta, modernoagoak, “Ex Machina” eta “Her”. Gaur egun, robotek pantailetatik salto egin dute, ez bakarrik industriari (robot besoak aspalditik erabiltzen dira hainbat lantegitan); gure etxeetaraino ere iritsi dira.

Etorkizuna? Robotika ikerkuntza arlo zabala da, eta etorkizun handikoa. Izan ere, askotariko aplikazioak aurreikus daitezke, orain dela gutxira arte pentsaezinak zirenak. Esan bezala, robot besoak industrian ohikoak bihurtu dira eta, ziur aski, garatu eta hobetu egingo dira etorkizunean. Medikuntzan ere, aplikazio esparru zabala dute eta izango dute. Beste ildo batetik, azken boladan ibilgailu autonomoak edo auto gidatuak kaleratzen hasi dira.

Dena den, etorkizunari begira, interesgarriagoak dirudite jendearekin harremanetan egongo diren robotak: robot laguntzaileak etxeetan, pertsona adinduei laguntzeko, edo enpresetan langileekin lankidetzan arituko diren robotak... Horrelako kasuetan, robotaren itxura ez da garrantzi txikiko kontua, eta, horregatik, robot humanoideak garatzen ari dira (PEPPER, NAO...). Robotarekin komunikatzeko modua ere garrantzi handikoa da, eta ahotsaren bidezko komunikazioari lehenetasuna eman behar zaio, pertsonentzat horixe baita komunikatzeko modurik behineana. Horrez gain, adierazkortasuna ere kontuan hartzeko gaia da, ahotsean zein keinuetan, pertsonengan ohikoa baita; arlo horretan aipatzekoak dira HANS eta EINSTEIN buruak (Hanson Robotics) eta Hiroshi Ishigurok (AIST) egindako bere buruaren erreplika.

Roboten adimena eta autonomia garatzen diren heinean, agian iritsiko da unea non Asimoven arauak kontuan hartu beharko dituzten roboten fabrikatzaileek, gaur egun egoera horretatik nahiko urrun gauden arren. •



Itxura desberdineko hainbat robot. RSAIT

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. FONDO MUNOA

KASINO IZATETIK UDALETXE IZATERA IGARO ZEN ERAIKINA

1863an ekin zioten Donostia-ko harresia eraisteari, eta urtebete geroago trena iritsi zen Gipuzkoako hiriburura. Horrek, hiriaren fisionomia aldatzea ekarri zuen; eraikuntza berriak altxatzen hasi ziren, zubi berriak egin ziren, eta Zurriola eta Bulebarra ere garai hartakoak dira. 1887an, aldiz, Alderdi Ederren eraikitako kasinoa inauguratu zuten, baina, 1924an, Primo de Riveraren diktadura garaian, itxi beharrean izan ziren, jokoaren gainean ezarritako debekuagatik. Zabalik izan zen denboran, baina, Europa mailako jende ospetsu ugari igaro zen bertatik. 1945etik aurrera gaur egun duen funtzioa hartu zuen eraikinak, hau da, udaletxearena. Argazkia 1886koa da, kasinoa eraikitzen ari zirenekoa, eta Luis Aladren eta Adolfo Morales arkitektoak ageri dira.



Metalezko
kutxa tentagarrian...
zure azalean aztarna
utzik duen sorpresa

kutxi erotikokoak

SEXUAZ GOZATZEKO BERROGEITIK GORA PROPOSAMEN

Gustu eta adin guztientzat
Bakarka, bikotean, taldean

Fitxa jostagarri eta irudidunetan
Euskaraz eta gaztelaniaz

Irailaren 12an
eta 13an, larunbata
eta igandean **GARA** rekin

14,95 € soilik

Harpidedunentzako eskaintza berezia: 11,95 €

Erreserbatu zure alea astearteko (irailak 8) 15:00ak baino lehen, 94.424.55.56 telefonoan
edo igorri dizugun emailari erantzunez. Etxera bidaliko dizugu, bidalketa gasturik gabe.

